




Arbel-gasa ustiatzearen kalteak

Ur kutsatuak, lurrikarak,
metano emisioak...



- **Euskal zinema** Aurtengo uzta oparoaren bi aurpegiak
- **Akiva Orr**, Israelgo idazle antisionista «Emakumeek aldatuko dute mundu arabiarra»
- **Fathi Buzakhar**, Libiako Amazigh Kongresuaren burua «Konstituzio berrian ez da inon ere aipatzen gure presentzia»
- **Keiko Suzuki** euskal eta japoniar kulturen arteko aldeez
- **Net Hurbil** Multinazionalak herrialde txiroetako esne-merkatua bereganatu nahi dute

Hilero dokumental bat proiektatuko da Euskal Herriko taberna, gaztetxe, kultur etxe eta euskaltegietan, guztiak euskaraz edo euskarazko azpidatziekin.

Anima zaitez zure herrian antolatza!

Doako proiektua da

☎ 943 37 15 45 · sustapena@argia.com

**Dagoeneko
proiektuarekin bat
egin duten elkarteak:**

- Bilboko Kafe Antzokia
- Arrasateko AED elkarte
- Urretxu-Zumarragako Gaztelekua
- Hernaniko Zumitza Taberna
- Zornotzako Barnetegia
- Maizpide Lazkaoko Barnetegia
- Lasarteko Jalgi Kafe Antzokia
- Getaiko Gaztetxia
- Zestoako Kultur Etxea
- Gabiriako Kultur Etxea
- Azpeitiko Sanagustin Kulturgunea
- Bilboko Kabia Kultur Elkargunea
- Goierriko Goiztiri AEK Euskaltegia
- Añorga Kultur eta Kirol Elkarte



Hilabete honetan ikusgai

Bidaia intimoak

Lau lagunek euskara ikasteko hartutako erabakiaz eta honek beren bizitzetan izan duen eraginaz egindako filma.


Jon Maia zuzendari,
Eriz Zapirain zuzendariaren albokoa.


✳ Bertaratuentzat
eskaintza bereziak
ARGIaren eskutik

**SARRERA
doan**

Datozen emanaldiak

- Oroitarria
- Lucio
- Sahara marathon





Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produkzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera >



**gizarte
kutxa**
zugandik zuzana



• **NON ZER** •

2011ko abenduaren 18a, 2.303. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Virginia Berasategui:** «Neurriz gora dena da txarra, jana, lana eta baita kirola ere». SUSTRAI COLINA / 4

Asteko gaia

- **Arbel-gasa.** Energiaren azken “pagotxa”. UNAI BREA / 5

Pertsonaia

- **Keiko Suzuki:** «Euskara ikastean, nire herriko kutsua aurkitu nuen Europan lehenbiziko aldiz». REYES ILINTXETA / 10

Gaiak

- **Akiva Orr:** «Ezerk ez du gatazkak baino gehiago hezten». ANE IRAZABAL / 16

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** Gartxon eta Hildakoaren Alaba. JOSÉ LUIS PADRÓN / 20
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENTA / 21
- **Zeñena.** GORKA URBIZU / 22
- **Txandan** Elkartzen gaituena. AMATIÑO / 22
- **Izotzaldia.** MIKEL ZURBANO / 23
- **Hiruko txikian** Asteburu. JOXEMARI OSTOLAZA / 23
- **Bertso berriak** Tunezeko oporraldiari jarriak. AGIN REZOLA / 24

Erdiko kaiera

- **Zinema.** Lilura hauskorra. MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 25
- **Liburuak** GEMA LASARTE / 30
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 31
- **Ezpalak** JON TORNER / 32
- **Abarrak** JON TORNER / 33
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Miel A. Elustondo:** «Bill-en arrakastak euskaldunok kutsatu gaitu». URKO APAOLAZA / 39
- **ETArek amaiera.** ETA, zeren izena ote? JAKES BORTAIRU / 43
- **Fathi Buzakhar,** Libiako Amazigh Kongresuaren burua: «Iraultzak traizionatu gaituelakoan gaude asko». KARLOS ZURUTUZA / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Laborari txikien esnea txarra da multinazionalentzat. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Batasunaren kontra.** AINGERU EPALTZA / 50



“Neurritz gora dena da txarra, jana, lana, eta baita kirola ere”

Virginia Berasategui | Ironwoman-a

Egunean hiru-lau aldiz dutxatzen den jendeak arima garbiegia al dauka deabruaren abokaturako?

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Iñigo Azkona

Igerian, txirrinduan eta korrika nabarmentzen ez direnak triatlloan hasten omen dira.

Hasi gara mito zaharrekin! Lance Amstrong triatleta ohiak Frantziako zenbat Tour irabazi dituen oroitaraztea nahi duzu? Triatloi bat ez da hiru modalitate, hiruren batura baizik.

Eta orain proben ordena aldatuz gero beste kirol bat litzatekeela esango didazu!

Jakina! Eta igeriketa azkenerako utzi eta uretara 180 pultsazioko izerdi patsetan sartuko bagina bihotzeko gehiago egongo liratekeela ere bai. Horregatik, horizontaletik bertikalera goaz, pixkanaka zutituz, gizakiaren eboluzioa bezala.

Gizakiaren eboluzioa bezala bai, bizitzeko norbere burua saldu behar izateraino.

Mugitzen ez denak ez du jaten. Futbol edo saskibaloit taldeek lehendakariak dauzkate ordezkariak lanetarako, baina guk atsedenera ostu behar diogu denbora. Gainera, nork ordezkatu du nire burua nik baino hobeto?

Zure emaitzek, adibidez?

Ez dago besterik. Ez da aski Espainiako txapeldun izatearekin, nazioartean nor ez bazara jai duzu. Eskerrak urteetako ibilbidea dudala atzetik, medioek kasu egiten didatela, ezaguna naizela, bestela...

Zer nahi duzu esatea, ni tximetaraino nago gizarte honek kirolarekin duen harremanaz!

Sinesten duzu zenbait amateurrek profesionalok baino gehiago entrenatzen dutela? Triatlloan orain hil bi hasi denak, engantxatu, zoratu, eta Ironman bat egin nahi duela? Burua sano eduki ezean, alperrik da gorputza saneatu nahi izatea.

Jendeak ikusten duena izan nahi du, eta zuena ere...

Gurea ere ez da mesedegarria. Nola izango da sanoa gorputza eta burua muga-mugara eramatea? Neurritz gora dena da txarra, jana, lana, eta baita kirola ere.

Horregatik dabilta eliteko kirolariak enpresaz enpresa lezioak ematen?

Ez daukat dudarik, kirolean puntakoa dena puntakoa izango da lanean. Zergatik? Lan gaitasun izugarria duelako, bere indarrak antolatzen eta kudeatzen ohituta dagoelako, ez zaiolako diziplinarik falta... Kiroleko baloreak bizitzan nor izateko baloreak dira.

Lasai, guretzat beti zu izango zara triatlloaren enbaxadore goren!

Ez pentsa. Kosta bertan daukagu, ziklismo-zaleitsuak gara, egun osoa pasatzen dugu korrika, eta gainera, kirol sakrifikuak gustatzen zaizkigu. Euskal Herrira 1984an heldu zen kirol bati tradizioa eskatzea haritzari sagarrak eskatzea da, baina apurka-apurka... ■



Arbel-gasa

Energiaren azken “pagotxa”

Energia-krisiaren eztanda ahalik eta gehien atzeratu nahian, hidrokarburoen industria etengabe ari da erregai fosilen iturri berriak bilatzen. Horietako bat da arbel-gasa edo eskistogasa. Eusko Jaurlaritzak esan duenez, EAEk hortik lortu lezake energia-burujabetasuna datozen hamarkadetan. AEBetako esperientziak erakutsi du, ordea, gas mota hori ateratzeko erabiltzen den teknikak, hausketa hidraulikoak, kalte ugari egiten diola ingurumenari.

UNAI BREA



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Subillako (Araba) legar-harrobi abandonatu honetan hasiko dira aztertzen arbel-gasaren bideragarritasuna, 2012 hasieran. Ikus ditzakezuen instalazioak harrobi zaharrenak dira; gas bilaketarako azpiegitura jarri gabe dago oraindik.

KOLPEA KOLPEAREN ONDOTIK, iritzi publikoaren aurrean lorpenak aurkezteko premian da Patxi Lópezen gobernuak. Begi ninietako bat energiaren alorrean aurkitu du: eskisto-gasa, edo arbel-gasa. Izen horiek eta gehiago ere baditu. Lehendakariak urriaren 14an igorri zuen berri ona Texasetik (AEB), eta harrezkeroztik hedabide irakurrienek eta ikusienek lau haizetara zabaldu dute Euskadiko biztan-

leei pagotxa oparitu diela naturak. Hainbat urtez euskal lurpean hidrokarburoen bila aritu eta gero, ondorioztatu da 185.000 milioi metro kubo arbel-gas egon daitezkeela Arabako Lautadaren lur azpian. Erkidegoaren beharrak 60 urtez asetzeko adina erregai. Akabo gasa urrundik ekartzea, akabo dependentzia. Eta gainera, ingurumenari kalterik egin gabe.



JOSIAHE.WORDPRESS.COM



EUSKO JAURLARITZA

Ekzerrean, AEBetako hauste hidraulikozko putzu bat. Patxi López Heyco konpainiak Texasen daukan erauzketa-gunean izan zen urrian, eta hantxe ezagutarazi zuen SHESAk, Heycok eta Cambriak osatutako partzuergoa, luze gabe Araban ekoizpen-probak egiten hasiko dena.

zulatu dituzte AEBetan, eta gero eta herritar gehiagok azaldu dute kezka hauste hidraulikoaren inpaktuak direla eta. Gauzak horrela, New York eta New Jersey estatuek moratoria ezarri diote arbel-gasaren ustiapenari. Lehenengoaren kasuan, arrazioa izan da New York hiriko ur edangarria dagoen eremu asko kaltetuak izan direla.

Uraren kutsadura da, izan, *fracking*-aren inpaktu ezagunena. Zuetako askok ikusiko zenuten 2010ean Josh Foxek zuzendutako *Gasland* dokumentala. Film horretan gogorari itsatsita geratzen diren irudi

horietako bat ikus daiteke: sukalde bateko txorrota ireki eta, pizgailu bat hurbilduta, sua dario urari. Ez da ura erretzen dena, noski, harekin batera datorren metanoa baizik. Gas naturala, %90etik gorako portzentajea, metanoa da.

Interneteko bilatzaileetan “Gasland” hitza idatziz gero, Foxen dokumentalarekin batera agertuko zaizkizu hura kritikatzan duten bideoak, gas konpainiek sustatutakoak. Errealitateari bizkar emanda, funtsik gabeko beldurra zabaltzea leporatzen diote *Gasland*-i. Ahots Berriak webgunean irakurri dugunez, antzeko argudioak erabili zituen Xabier Garmendia Eusko Jaurlaritzako Industria sailburuordeak, *fracking*-aren arriskuengatik kezka agertu zioten hainbat talderekin egindako bileran, joan den azaroan. Garretan dagoen txorroteko uraren irudia anekdotatzat jo zuen sailburuordeak. “Texasen 15.000 putzu ustiatu dituzte, eta ez da ingurumenarekin lotutako inolako ezbehar larririk izan”. Beste estatu batzuetan arazoak izan zirela onartu bazuen ere, hausketan hidraulikoaren segurtasuna defendatu zuen Garmendiak: “Teknikak aurrera egin du, horrelako gauzak gerta ez daitezten”.

AEBetan, hamar urteko ustiapenak agerian utzi ditu hauste hidraulikoak sortzen dituen ingurumen arazoak: ur kutsatua, metano emisioak, lurrikarak...

Historia polita itxuraz, baina ez horrenbeste irakurketa zorrotzagoa eginez gero. Gas konbentzionala nahiko erraz ateratzen da lurretik, eta errentagarria izaten da. Baina arbel-gasa ez da konbentzionala. Porositate txikiko haitz iragazgaitzean gordeta dago, eta azaleratzeko ohikoa baino teknika erasokorragoa eta garestiagoa erabili behar da: *fracking*-a edo hauste hidraulikoa.

Arbel-gasa ustiatzen eskarmentua daukan munduko herrialde ia bakarra AEB da. Hamarkada bat daramate gas naturala *fracking* bidez eskuratzen, eta denbora horretan inportatzetik esportatzera igaro dira. Baina hamar urteko ustiapenak agerian utzi ditu hauste hidraulikoak sortzen dituen ingurumen arazoak: ur kutsatua, metano emisioak, lurrikarak... Azkenean, administrazioak neurriak hartzera behartuta ikusi du bere burua. AEBetako Ingurumenaren Babeserako Agentziak (EPA) gas ez-konbentzionalaren ustiapenak ingurumenean eta giza osasunean duen eragina ikertzen hasita dago, eta 2012 amaieran jakinaraziko omen ditu emaitzak.

Gasak kutsatutako ura


2005ean, George W. Bushen gobernuak Energia Politikaren Legea onartu zuen. Horren ondorioetako bat zen hauste hidraulikoa erabiltzen zuten enpresak ez zirela, aurrerantzean, Ur Edangarriaren Segurtasunaren Legea betetzera behartuta egongo, ez eta EPAk ezarritako arauetako asko ere. Urte hartatik 15.000 putzu

Arbel-gasaren ikerketa eremuak Euskal Herrian

Ikerketa eremuak autonomia erkidego bat baino gehiagoko lurrak edota itsasoa hartzen baditu, Espainiako Industria Ministerioari dagokio baimena ematea. Beste kasuetan, erkidegoko administrazioari.

1	Enara	75.852 ha.
2	Usoa	72.6915,5 ha.
3	Usapal	74.934 ha.
4	Mirua	75.240 ha.
5	Saia	49.752 ha.
6	Lurra	12.438 ha.
7	Lore	37.314 ha.
8	Sustraia	55.971 ha.
9	Landarre	37.314 ha.
10	Libra	37.893,11 ha.
11	Geminis	47.940,42 ha.
12	Pegaso	101.032,10 ha.
13	Quimera	102.884,30 ha.

Enara, Usoa, Usapal eta Mirua,
Enara Handia izeneko eremuan batuta
daude 2008az geroztik.



- Espainiako Gobernuak dagoeneko emandako baimenak
- Eusko Jaurlaritzari eskatutako baimenak, oraindik ebatzteke
- Espainiako Gobernuari eskatutako baimenak, oraindik ebatzteke

Libra, Geminis, Pegaso eta Quimera eremuei dagozkien baimenak Frontera Energy Corporation enpresak eskatutakoak dira. Gainerakoak Energiaren Euskal Erakundeak sortutako SHESA konpainiak eskatu ditu.

Iturria: Kantabriako Hauste Hidraulikoaren Aurkako Taldea

Ez daukagu daturik esateko AEBetan metanoa darien txorrotan kopurua anekdotikoa den ala ez. Baina esan dezakegu Duke Unibertsitateko ikerlariek maiatzean argitaratutako lanaren emaitzek gutxi dutela anekdotikotik. Pennsylvania eta New York estatuetako 68 ur putzu aztertu ondoren, metanoa aurkitu zuten horien %85ean. Konturatu ziren, gainera, gas hobietatik kilometro bat baino gutxiagoko distantziara zeuden putzuetan metano kopurua hamazazpi aldiz handiagoa zela, batez beste, gainerakoetan baino. Metanoa jatorri naturalekoa edo gas ustiaketaren ondoriozkoa zen ere behatu zuten: gehien zeukaten putzuetan, ustiaketa zen gasaren iturri nagusia.

Ehunka substantzia kaltegarri

Metanoa ez da *fracking*-aren ondorioz uretara iristen den kutsatzaile bakarra. Hauste hidraulikoa, funtsean, zera da: sakonera handiko putzuak egin eta horietatik ura eta silizea

sartzea presio handian, harria puskatuz gasa askatzeko. Hodiak beherantz doaz hasieran, eta gero aldeetara zabaltzen dira. Ehunka konposatu kimiko ere sartzen dira, urarekin eta silizearekin batera.

Urtetan, AEBetako gas konpainiek uko egin diote konposatu horien izenak publikoki esateari, industria-sekretua babesten duten legeen aitzakia erabilita. Azkenik, eta presioek bultzatuta, zabaltu dituzte substantzia batzuen izenak, baina ez denenak.

Presio horien arrazoietakoa bat Theo Colborn zientzialari estatubatuarrek egindako azterketa izan zen. Colbornek bere kabuz bildu zituen ustiatagietako hondakinak, eta analisisia egin eta gero ia 649 konposatu kimiko aurkitu zituen. Horietatik, 286 ez daude katalogatuta, eta ingurumenean edo osasunean eduki dezaketen eragina ezezaguna da. Gainerakoetatik, %55ek eragina dute burmuinean eta nerbio-sisteman, %78k arnas-

Xabier Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Industria eta Energia sailburuordea: "Ustiaketa segurua posible ez bada, ez da ustiatuko"

Zenbait taldek kezka agertu dute hauste hidraulikoak ingurumenari eragingo dizkion kalteak direla eta. Zuk erantzun diezu teknikak hobetu egin direla eta ez dagoe-la zertan kezkatu. Zeintzuk dira, zehazki, teknika horiek?

Eusko Jaurlaritzak planteatu duena zera da: hobiaren bideragarritasuna aztertzen hastea, alde teknikotik, ekonomikotik eta ingurumenari dagokionetik. Bideragarritasun hori frogatzekotan baizik ez litzateke hasiko ustiapen fasea. Hala da, besteak beste, ez daudelako hauste hidrauliko bidezko estimulazio-teknikei modu berean erantzuten dioten hobi bi. Erabiltzen den ur, silize eta gehigarri nahastea ere ez da berdina hobi guztietan. Hobi bakoitzak bere neurriko jantzia behar du, bai estimulazio teknikei bai inpaktuak zuzentzeari dagokienez.

Edozein kasutan, onartzen duzu ingurumenaren gaineko inpaktua badela?

Onartzen dut inguruan egiten den edozein interben-tziok inpaktua duela. Jakin behar dena da ea inpaktu

horiek kritiko eta atzeraezinezkoak diren, hau da, baliabidea ustiatu daitekeen ingurumenerako arrisku onartezinak hartu gabe. Ustiaketa segurua posible bada, hobia ustiatuko da. Eta posible ez bada, ez da ustiatuko, zuhurtzia printzipioari men eginez. Hori da Eusko Jaurlaritzaren konpromisoa. Berriz diot esplo-razio-lanak egiten ari garela, ez ustiaketa-lanak. Ustia-keta gerora hartu beharreko erabakia da.

AEBetan ikerlanak egin dituzte hauste hidraulikoan era-biltzen diren konposatu kimiko gehigarriez; dozenaka konposatu toxiko aipatzen dituzte. Industria Sailak badaki zehazki zeintzuk diren gai horiek? Zer duzu esate-ko haien arriskuaz, edo arrisku faltaz?

Hauste hidraulikoa egiteko beharrezkoa da haitzean ur, silize eta gehigarri nahaste bat txertatzea. Gehigarriak substantzia kimikoak dira, hainbat funtzio dituztenak: hausketan erabiltzen den tresnen lubrikazioa, babes mekanikoa, bio-babesa, eta abar. Dozena bat dira gutxi gorabehera, eta ondo ezagunak. Hobi bakoitzerako

aparatuan, azalean, begietan, gibe-lean eta hesteetan, eta %47k sistema endokrinoari egiten diote kalte, eta beraz ugalketari. Aztertutako konpo-satuen %58 uretan disolbagarria da, eta %36 haizeak garraiatu ditzake. %25 kantzergenoak dira.

Konposatu horien zati bat lurpean geratzen da, eta bertako akuiferoetara iristeko arriskua dago. Aldiz, hoditik sartutako jariakinaren portzentaje bat –%15 eta %80 bitartekoa, EPAren arabera– berriro ateratzen da gainazalera. Hasieran zituen substantziez gain, lurzorutik dakartzan-ak gehitu behar zaizkio: metal astunak, ele-mentu erradioaktiboak, bentzenoak... Erabil-tzen den ur kopurua eskerga denez –horra beste inpaktu bat–, bueltan datorren hondaki-nen arazoa ez da txikia.

AEBetako arbel-gas ustiategi gehienetan, hondakin-ur horiek lurperatu egiten dituzte, Kantabriako Hauste Hidraulikoaren Aurkako Taldeak helarazi digun txostenak dioenez. Baina beti ez da horretarako aukera egoten. Hala gertatzen denean, lurruntze-baltsetan uzten dituzte hondakinok, edo bestela arazte-gi publikoetara eraman eta administrazioaren esku uzten dute arazoa. Gehienetan, araztegi horiek ez daude behar bezala prestatuta ez hondakin mota hori tratatzeko, ez eta hain kopuru handietan. Okerreko jardunen ondor-rioz, behin baino gehiagotan ibairen bat izan da ur kutsatuaren azken geltokia.

**Hainbat estatuk
arbel-gasaren aldeko
apustua egin badute ere,
ustiapen mota horri
buruzko araudi zehatza
falta da oraindik Europar
Batasunean**

Gauzak ustez ondo egitea, hau da, hondakinak lurpean sartzea, arazo itu-rra da halaber. Ohikoak ez diren lekue-tan erregistratu diren ehunka lurrikara txiki, Richter eskalan hiru gradu baino gutxiagokoak, hondakinen lurpera-tzearekin lotuak izan dira. Lurrikara horien errua hauste hidraulikoari berari ere bota diote. Eta ez edonork, AEBetako Geologia Zerbitzuak bai-zik. Hots, gobernua. Gugandik hur-bilago, udaberrian Britainia Handian gertatu-tako lurrikara txiki biren kausa *fracking*-a dela ebatzi du afera ikertzeko beren-beregi sortuta-ko batzorde independenteak.

Kutsadura atmosferikoaren eragile

Urak eta lurrak ez ezik, aireak ere jasaten du hausketan hidraulikoaren eragina, ustiaketaren urrats guztietan konposatu organiko lurrunko-rrak igortzen baitira atmosferara. Azken hiru urteetan egindako hainbat ikerketak frogatu dute Fort Worth hiritik hurbil dauden arbel-gas ustiategiak segurtasun mugetatik gorako kutsatzaile kontzentrazioak jaurtitzen ari direla eguratsera. Non eta Texasen. Southern Met-hodist Unibertsitateak 2008an egindako azter-keta baten ondorio nagusia izan zen Dallas-Fort Worth metropoli eremuan –sei milioi biztanle– gas erauzketek kutsadura gehiago eratzen zutela garraibide guztiek baino.

Era berean, hauste hidraulikoak klima aldaketa azkartzen laguntzen du. CO₂-aren

desberdinak dira, eta proportzio egokian erabili behar dira beren zeregina ondo beteko badute inguruari kalte egin gabe. Europak orain gutxi onartu du REACH ize-neko araudia, substantzien konposizioaren ezagutza gardena segurtatzen duena, hala nola erabilpenaren kontrola, ingurumenean eta pertsonen osasunean eragin ditzakeen ondorioena barne. Substantziok behar bezala identifikatuta daude, eta haien ezaugarriak eta konposizioa publikoak izango dira. Gure kasuan, gainera, EEE, hau da, Eusko Jaurlaritza da Enara Handiko Esplorazio Partzuergoaren %44aren jabea, eta hori beste gardentasun berme bat da.

Estatubatuar enpresen ustezko gardentasun faltari buruzko informazioek AEBetako araudiarekin zerikusia dute, eta baita enpresa bakoitzak bere nahastearen konposizio egokia bilatzearekin ere. Enpresek ez dute informazio hori euren lehiakideekin partekatu nahi, eta badirudi estatubatuar legediak hala jokatzeari baimentzen duela. Gure kasuan ez da hala izango. Administrazioak beti jakingo du zer substantzia erabiltzen den, eta haren ezagutza ingurumenari buruzko informazio-eskubideari lotuta egongo da.

Substantzia horien arriskuak dosiarekin zerikusia du. Dosiarekin, eta inguru hartzailearen sentiberatasu-

narekin. Bota ezazu Errioxako ardo uzta oso bat tamaina egokia duen aintzira batean, eta haren urak eutrofizazioz ustelduko dira. Beharbada hondakinaren definizio onena hau da: kopuru desegokian, leku desegokian eta une desegokian dagoen substantzia.

Arbel-gas ustiapenaren errentagarritasun faltari buruzko literatura ugari. Hainbat egileren esanetan, ateratzen den gas kopurua hasiera bateko estimazioak baino txikiagoa izaten da.

Bada, horretarako egingo dugu esplorazioa. Gasa ez bada behar bezalako kopuruetan ateratzen, Enara Handia ez da ustiatuko. Ez bada errentagarria, ez da ustiatuko. Eta ezin bada ustiatu ingurumenerako arriskurik gabe, ez da ustiatuko.

Dena den, uste dut baieztapen horiek egiten dituztenak okerreko webguneetan sartzen direla. Sartuko balira datu errealek ematen dituztenetan, jakingo lukete AEB gasa inportatzetik esportatzera igaro dela, eta 2009an munduko gas natural ekoizle nagusi bihurtu zela, Errusia gaindituta, gas ez-konbentzionalari esker hain zuzen. Eta horrek merkatu estatubatuarrean gas naturala merkatzea eragin duela. Badirudi batzuek ez dakitela beren nahia eta errealtatea bereizten.

sona ez badu ere, metanoak negutegi efektuaren areagotzean duen eragina 23 aldiz handiagoa da. Cornell Unibertsitateko lantalde batek kalkulatu du lurpetik ateratzen den gasaren %3,6 eta %7,9 bitarteko portzentaje batek ihes egiten duela airera.

Europar bi jarrera

Aurreko guztia ikusita, ez gintzukete harritu behar Europako Parlamentuak eskatuta Alemaniako aholkularitza enpresa bik ekainean burutu zuten txostenaren ondorioek: hauste hidraulikoak inpaktua dauka ingurumenean eta giza osasunean, eta gaur egungo europar legediak ez du argi esaten enpresa jardun hori nola arautu behar den.

AEBetako gas konpainiek gure kontinentea begiz jota daukaten honetan, Europar Batasuna finkatzen ari da bere posizioa. Baina estatu guztiek ez dute bide bera hartu. Euskaldunoi dagokigunez, Frantziak debekatu egin du hauste hidraulikoa, eta Europa osoan hala egin duen bakarra izan da gainera. Oso bestelakoa da Espainiaren jarrera, bistan dena: Madrilgo Industria Ministerioak arbel-gasaren aldeko politikak sustatu ditzan eskatu dio Europar Batasunari. Ingurumen arazoez atariko haizeaz bezain ezaxola ageri da espainiar gobernuak afera honetan, eta hala, Araban hastear dauden produkzio probetarako aurretiazko inpaktu azterketarik ez dela behar uste du Industria Ministerioak.

Hau baino orrialde bi lehenago dagoen mapan ikus daitezke Euskal Herrian baimen-

duta edo baimentzeke dauden gas ez-konbentzionalaren ikerketa eremuak. Ez zaitzatela nahasi ia Araba eta Bizkaia osoak eta Gipuzkoako zati handi bat koloreztatuta ikusteak. Oraingoz putzu bi besterik ez dira zabalduko, biak 5.000 metro inguruko sakonerakoak, Enara izeneko eremuan, Subilla Gasteiz heritik gertu. 2012ko lehen hiru hilekoan hasiko dira lanak, eta ustiapenak sortuko lituzkeen arazo teknikoak, bideragarritasun ekonomikoa eta ingurumenaren gaineko inpaktua neurtzea da helburua.

Emaitzak onak balira, eremua benetan ustiatzen hasteko baimena eskatuko luke xede horrekin eratu den partzuergoak. Hiru kide ditu itunak: aro jeltzalean Jaurlaritzak sortutako SHESA konpainia (Euskadiko Hidrokarburo Elkarte), Heyco Energy Group –Texasen Patxi López ostatu eman ziona– eta Cambria Europe. 100 milioi euro gastatuko dituzte bizpahiru urte iraungo duten aurre-produkzio lanetan, eta ohartuko zenez, irakurle, ez du ziurtatuta arrakasta. AEBetan hamaika analistak, zientzialarik eta industriako kidek agertu dituzte arbel-gasaren errentagarritasunaz zalantzak. Errentagarritasun ekonomikoa zein energetikoa. Batzuen ustez, oso litekeena da hau guztiau urte gutxi barru lehortuko den burbuila izatea, zeinetik inbertsore handienek garaiz irteten jakingo baituten. Izango dugu horretaz zabal jarduteko aukera. ■



Keiko Suzuki

«Euskara ikastean, nire herriko kutsua aurkitu nuen European lehenbiziko aldiz»

Keikori presaka eta korrika ibiltzea ez zaio gehiegi gustatzen, halere pauso azkarrean heldu da Iruñeko Hizkuntza Eskolara. Japoniera irakasle da bertan eta bere lantokian egin dugu hitzordua. Agurtu ondoren, irribarretsu, kontu pertsonalik ez galdetzeko esan digu. Irribarrea galdu gabe, betiko galderei erantzuna emateaz nekatuta dagoela eta oso pertsona arrunta dela gaineratu du hurrengo hamar segundoetan. Zaila jarri diguzu abiapuntua, Keiko, baina ziur gaude gauza interesgarri asko duzula kontatzeko.

REYES ILINTXETA

Argazkiak: Dani Blanco

Zergatik hautatu zenuen Filologia Hispanikoa?

Azterketa sistema gustatzen zitzaidalako eta jende gutxi aukeratzen zuelako. Gaztelania unibertsitatean bertan ikasi nuen.

Eta euskara?

Hemen. Nire senarrari asko gustatzen zaio euskara eta euskarazko kantak, eta horrek eragina izan zuen. Erabaki genuenean gure alabek euskaraz ikas zezaten, orduan, ama gisa, nik ere ikastea deliberatu nuen haiei laguntzeko. Iruñean bertan ikasi dut, ez dut ikastaro trinkorik egin ez eta barnetegirik edo halakorik ere. Normalean japoniarrek ez dugu erraztasun handirik beste hizkuntzak ikasteko. Gaztelania eta euskara agian errazago egiten zaizkigu bost bokal besterik ez dutelako, japonierak bezala, baina frantsesa edo ingelesa askoz zailagoak dira guretzat.

Zuen alabek zer harreman dute Japoniako kulturarekin?

Gure alabek japoniera ulertu bai baina hitz egiteko zailtasuna dute. Japoniara joaten garenean nola edo hala moldatzen dira. Nik japonieraz hitz egiten diet baina erantzuna gaztelaniaz edo euskaraz ematen didate ia beti. Bestalde, bi izen dituzte: lehenengo izena hemengoa eta bigarrena Japoniako.

Hango izenak hemengoentzat oso zailak dira ahoskatzeko, euskaldunentzat ez horrenbeste, “ts” eta “tz” soinuak ongi desberdintzen dituztelako.

Zuretzat hasieran aldaketa handia izan zen hona etortzea?

Ni Barañaingo familia batekin bizi nintzen, eta anekdota moduan, gogoratzen dut oso

Nortasun agiria

Nagoya, Japoniako laugarren hiri handiena da Keiko Suzukiren sorterrria. Han Filologia Hispanikoa ikasi zuen unibertsitatean eta hori izan zen Iruñera lehen aldiz, Nafarroako Unibertsitatera, ekarri zuena. Ikasketak amaituta hona itzuli zen, nafar batekin ezkondu eta bere alaba bikiak jaio eta denbora gutxira euskara ikasteari ekin zion, orain dela hamabi bat urte. Egun, japoniera irakaslea da Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean eta duela urtebete *Maitasunezko oihua, munduaren erdian*, Inma Errearekin batera itzulitako eleberria aurkeztu zuen Durangoko Azokan.





Erritmoa

“Hemen jendea oso erraz pasatzen da hitzetik ekintzetara, Abiadura Handiko Trena bezala. Eta niri asko kostatzen zait. Hango erritmoa motelagoa da. Batzuetan motelegia. Ez dakit zer den onena”.

kolpe handia izan zela niretzat ardien kakak kalean ikustea. “Ardiak ibiltzen dira hemen?” pentsatu nuen. Japonian ere badaude, baina ez kalean hemen bezala. Hasieratik hemengo ohituretara egokitzea erabaki nuen eta horregatik desberdintasunei ez nien garrantzi handirik ematen. Beti pentsatzen nuen ikasi behar nuela. Halere bizitzeko eta pentsatzeko modua bai dela desberdina. Adibide bat: lehengo egunean Mendillorri izan zen manifestazio bat eskola bateko patioa oso txikia delako eta jantokian ere toki gutxi dutelako. Horretaz hizketan ari ginela nik pentsatzen nuen, “zertarako egin behar dute manifestazioa? Jantokian tokirik ez badago gelan jan eta kito”. Nik txikitan beti bazkaltzen nuen ikasgelan eta ez zegoen inolako arazorik. Euria ari duenean, patioan tokirik ez badago, gelan gelditu. Eta arauengatik ezin bada hori egin, aldatu arauak. Zergatik manifestazioraino iritsi? Zergatik arazo bat dagoenean, hori handitu? Duguna erabili eta gero moldatuko

gara. Soluziobide praktikoak behar dira. Orduan pentsatzen dut: “Keiko, hau Japoniako pentsatzeko modua da, ez hemengoa”. Gauzak, arazoak handitzeko joera hori batzuetan ulertzen dut, baina beste askotan ez. Hori da topatzen dudakontu zail bat, horregatik normalean ez dut nire iritzia ematen. Agian hemen bizitzeko hobe da bost segundotan hitzetik ekintzetara pasatzeko gaitasun hori izatea, baina ni oraindik oso motela naiz.

Ekialdeko izaera bestelakoa da...

Ekialdea ez da oso esamolde zehatza: Korean, Thailandian... manifestazio asko egiten dira, adibidez, eta Japonian ez. Ekialdea esatea Europa esatea bezala da, eta berdinak al dira alemanak eta espainiarrak?

Barkatu ezjakintasuna. Zenbat aldiz esan dizute ea txinatarra zaren?

Orain jada ez horrenbeste, baina hasieran, duela hamabost urte bai entzuten nuela kaletik: “Begira txinatar bat”. Duela zenbait urte Soriako herri txiki batean bazkaltzera joan ginen eta jatetxean jaunartze bat ari ziren ospatzen. Bazkaldu bitartean ume multzo bat nire inguruan nuen, niri serio demonio begira. Eta gainera beren lehengusu eta lehengusinak eta lagun guztiak deitu zituzten ni ikustera etortzeko. Lehenbiziko aldia omen zen Ekialdeko norbait ikusten zutena. Iruñean halakorik ez zen gertatzen, hemen atzerritar asko ibili delako aspaldidanik Nafarroako Unibertsitatean eta jendeak normaltzat hartzen du kanpotarrak ikustea.

Guretzat Ekialdeko jendearen artean desberdintasun fisikoak aurkitzea zaila izaten da. Zuei zuriekin gauza bera gertatzen zaizue?

Niri orain ez, baina Japonian jendeak ez du bereizten nor den Alemaniakoa, Estatu Batuetakoa, frantziarra edo espainiarra. Nire aitona-amonon garaian zuria zena Estatu Batuetakoa zen, handik asko etortzen zirelako.

Japonia asko aldatzen ari da?

Tradizioaren eta bizimodu modernoaren artean ez da ika-mika asko ikusten, baina atzera begiratzeko joera nabaria da. Adibidez, duela gutxi itzuli dugun eleberriaren arrakasta oso esanguratsua da. *Maitasunexko oibua munduaren erdian*, Kyoichi Katayama idazlearen *Sekai no Chuushin de, Ai wo Sakebu*, amodio istorio erromantikoa, gorputz harre-



manik gabekoa eta klasiko samarra da. Nerabeentzat oso ongi dago, polita eta irakurterraza da. Baina hainbesteko arrakasta lortzea gizarte osoan ikaragarria da. Hiru milioi ale baino gehiago saldu dira Japonian. Arrakasta handiegia, ene ustez. 1980ko hamarkadan kokatutako istorio honen harrerak erakusten du telefono mugikorrik gabe eta motelxeago ibiltzen zen garaiaren nostalgia sentitzen duela jendeak, nolabait. Nik ikusten dut jendearen nekea. Ez dakit adituek zer pentsatuko duten, baina nik gero eta estres handiagoa sumatzen dut eta, neu-

Nostalgia

“Hango jendearen artean nik ikusten dut asko atzera begira jartzen ari direla, nolabaiteko nostalgia sumatzen dutela”.

rri batean, askok uste duela irtenbiderik gabeko gizartea dela.

Ez dut uste Mendebaldeko eraginarengatik denik, hemen ere gerta daiteke. Ekonomia handitzean jendea baikor bizi da kanpora begira. Krisi garaian aldiz barnera begira egoten da.

Japonian Bigarren Mundu Gerratik aurrera ekonomia hazi eta hazi, besterik ez zuen egin 90eko hamarkadara arte. Eta hortik aurrera nahasmen handia nagusitu zen. Honi gehitu behar zaio martxoan gertatu ziren lurrikara eta tsunamia. Ezkortasuna zabaldu da horren kontura ere.



**TALLERES
MITXELENA S.COOP.**



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

AZKEN HITZA

Gastronomia

“Gastronomiarekiko interesa senarraren kontua eta nire amaren errua da. Nire senarra oso hemengoa da eta hemengo janaria maite du. Ezkondu nintzeanean amak esan zidan: ‘Keiko zu ezkondu zaude eta hemen bizi behar duzu, beraz hemengo kulturarekiko begirunea izan behar duzu eta zure amaginarrebak esaten dizuna errespetuz hartu’. Batzuetan kostata izanda ere, hemengo ohituretar egin naiz, amak esan zidan bezala. Kultura bateko janaria jatea kultura hori onartzea da. Hemengoa gustatzen zait eta Japoniakoa gustatzen zait. Ez dut horretan batere arazorik”.

Zer nolako ondorioak izan dituzte gertaera latz hauek jendearengan?

Ezbehar hau kolpe bat gehiago izan da. Makilakada handia. Industria asko Japoniatik kanpora joaten ari da eta jendearen indar mentala behera doa. Lurrikarak beti gertatu izan dira Japonian eta, neurri batean, ohituak geunden, baina hau ikaragarria izan da. Japonia ez dela toki segurua eta lurrikaren eraginpean dagoela uste da orain munduan. Oso egoera gogorak suertatzen ari dira. Erradio-aktibitatez kutsatzeko arriskua dela eta, adibidez, eguneroko bizimoduan batzuk oso kezkatuta daude haien osasunagatik eta botilako ura erabiltzen dutela baita janaria prestatzeko ere, nire lagun batek kontatu zidan bezala. Beste batzuek, aldiz, oraindik datu zehatzik ez dagoela diote eta ez dela kezkatu behar frogazientifikoak izan baino lehen.

Euskara

“Euskara ez da hinkuntza indoeuroparra, eta japonierarekin antza du gauza batzuetan. Euskara ikastea, nire herriko kutsua aurkitu nuen Europan lehenbiziko aldiz. Oso erakargarri egin zitzaidan hasieratik, erraz pentsatzeko modukoa baita. Horrez gain, mundu zaharreko ohitura batzuk aurkitu ditut, nire herrian ere gordetzen direnak. Esaterako: azeri ezkontza esaten da euria eta eguzkia aldi berean egiten duenean eta Japonian ere berdin esaten da. Hori ez dut beste inon aurkitu hona iritsi arte. Beste adibide bat: Sakanan Urte Zahar gauean egiten duten ur berriaren erritua. Han antzeko zerbait egiten da, ur gaztea esaten zaio. Sakanan gazteak joaten dira iturrira. Japonian urteko lehen eguzkia sortzean etxeko jabeak lehenbiziko ura hartzen du iturritik”.

Ikaragarritzko ezbeharra izan zen, baina, hala ere, garrasi eta malko gutxi ikusi genuen telebistako irudietan.

Guk normalean halakorik ez dugu egiten. Ez dakit zergatik, baina ez dugu horrela jokatzen. Gure sentimenduak adierazten ditugu, baina agian, zuen ikuspuntutik begiratura, oso neurri txikian. Nik bai ikusten nuen zer erakusten zuten pertsona horiek. Lehen baino nabariago egiten dugu orain, gainera. Lehengo garaietan gutxiago adierazten ziren barne sentimenduak. Auto istripu batean, adibidez, normala da familiak bere oinazea adieraztea, baina martxokoa bezalako gertaera latz handi batean, guztiok jasan zuten ezbehar batean, nori erakutsi sentimendu hori? Aldamenekoa zu bezala baldin badago, zertarako? Ongi dago barneko nahigabea erakustea, baina hori baino garrantzitsuagoa da egin behar denari ekitea.

Erljioak gaur egun garrantzi handia du Japonian?

Ene maitea! Oi ene, zer galdera! Erljioaren beraren definiziotik hasi beharko genuke. Japonian bi erlijio nagusi daude: budismoa eta sintoismoa. Katolizismoa eta protestantismoa ere bada eta baita islama ere, baina oso neurri txikian. Hemengoarekin alderatuta esango nuke hango jendeak erlijioari ez diola garrantzi handirik ematen. Ez dago hemen bezain lotuta eguneroko bizimoduari. Gazteen artean hemen gero eta pisu txikiagoa du baina adineko jendearentzat oso garrantzitsua da. Han, esate baterako, pertsona bat budista izan daiteke baina tenplu sintoistera noiz edo noiz joan eta hoteleko kapera kristauan ezkondu; hau, gainera, oso modan dago egun. Zerbait gertatzen denean guk ere esaten dugu *Jainko maitea!* Baina zer Jainko da hori? Ez dakit.

Hemengo bizimodutik zer da gehien gustatzen zaizuna?

Mendebaldean, oro har, jendeak duen indarra. Fisikoa, mentala... Mota guztietakoa. Baikortasuna. Eta norberaren buruan duten konfiantza. Guk ez dugu halakorik.

Eta gutxien?

Hori ere bai! Erritmo berean ibili behar izateak neke handia sorrarazten dit. Ni ez naiz horren indartsua. Batzuetan esaten dut: mesedez, geldi hor ni iritsi arte! Hemengo jendeak gauzak pentsatu eta ekin, biak ia aldi berean egiten ditu, baina nik hori baino lehen nahiago dut dena ongi pentsatu. Ideiak garbi izan nahi ditut.

Mila esker, Keiko. Sayoonara. Ogenki de [Agur. Ongi izan]. ■



goienakluba[™]

Abantailaz betetako kluba!



Erremeixuak **DVD-a salgai**

DVD-aren
prezioa:

14 €

(Bidalketa gastua **barne**)

Goiena Klubeko
kideentzat prezio
berezia:

12 €

(Bidalketa gastua **barne**)

Eskatu eta zure etxeko buzoian jasoko duzu!

943 25 05 05 • kluba@goiena.com

www.goienakluba.com

• Akiva Orr •

«Ezerk ez du gatazkak baino gehiago hezten»

Ahozko kontalarien istorioak entzutea bezalakoa da Akiva Orr (Berlin, 1931) idazlearekin hitz egitea. Hizlari kartsua eta karismatikoa, Palestinako gatazkaren hasierako garaiak gustatzen zaizkio gogora ekartzea, “gaztetako kontuak”. Ekintzaile antisionista garrantzitsua da Israelen, errealista bezain zorrotza. Munduaren gaineko ikuspegi kritikoak, ordea, ez du bere “baikortasun kronikoa” zapuztu.

ANE IRAZABAL

Argazkiak: Sergio Yahni

Alemaniatik Palestinarako bidea egin zuen zure familiak 1930eko hamarkadan. Mugimendu sionistaren kide al ziren?

Ez. Naziek indarra hartu zutenean, Alemaniatik alde egitea erabaki zuten, beste judu askok bezala. Amerikako Estatu Batuetara joatea zen beraien hasierako ideia, baina lehenago, Jerusalem bizi zen osaba bisitatu behar genuela erabaki zuen amak. Hona etorri bezain pronto, Tel Aviv-eko hondartzaz maitemindu zela esan zion aitari, eta geratzea erabaki zuten. Gerora, biziki damutu zirela aitortu zidaten,

iritsi zirenean ez baitzekiten beste nazio bat bizi zenik bertan. Gure ama artista arrakastatsua zen Alemanian, baina Israelen ez zuen gehiago lan egin, inork ez baitzuen interesik artean edota sormenean. Israel eraikitzeko misioak itsuturik zituen etorkin gehienak.

Noiz hasi zinen Palestinako gatazkan interesa hartzen?

Gaztetan nahiko apolitikoa nintzen. Beste ume gehienak bezala, ezkutuko taldeetan jarduten nuen, britainiarren aurkako panfletoak



banatzen. Baina inoiz ez nuen palestinarren-gan pentsatu. 1951n, marinela nintzela, greban egon ginen hilabete pasatxo, eta poliziak grebalariei kontra nola erantzun zuen ikustean, politika hurbilagoetik jarraitzea erabaki nuen. Alderdi komunistan sartu nintzen, eta garai hartan ezagutu nituen bertako kide ziren zenbait palestinarrak. Jabetu nintzen gobernuaren trikimailuez, palestinarrak Israelgo ekonomiatik eta gizartetik kanporatzeko. Sionismoaren izaera bortitzaren kontra borrokatzea erabaki nuen orduan.

Sionismoa, ideologia ahula dela esan ohi duzu, zergatik?

Identitate artifiziala delako. Sionismo politikoa, lehenago existitzen zen sionismo emozionala ordezkatzeko sortu zen, eta estatu juduaren eraikuntza izan zen horren muina. Garai hartan, desintegrazio prozesua hasi zuen judaismoak, izan ere, XIX. mendearen amaieran, Europako juduen %20 bakarrik zen erlijiosoa. Gainontzeko %80 asimilatu nahian zebilen. Sionismoa da judu ez erlijiosoek sortu zuten mugimendu nazionalista, erlijioa alde batera utzita judutar identitatea mantentzeko. Sionistek ez dute inoiz onartuko, baina ideia nagusia zen estatua Jainkoarengatik ordezkatzeta, estatuarekiko leialtasunak hartu zuen Jainkoarenganako fideltasunaren tokia."

"Sionistek ez dute inoiz onartuko, baina ideia nagusia zen estatua Jainkoarengatik ordezkatzeta, estatuarekiko leialtasunak hartu zuen Jainkoarenganako fideltasunaren tokia"

Eta zer irizten diozu nortasun palestinarrari?

Oso definitua dagoela esango nuke. 1.000 urte baino gehiago daramate hemen bizitzen, eta lurrarekiko harreman estuan oinarritzen da beraien nortasuna. Palestinarrentzat ehorzketa hitzak "lurrarekin ezkondu" esan nahi du. Arras duina eta polita iruditzen zait hori. Sionistentzat, berriz, produkzioarako erreminta besterik ez da lurra.

Matzpen erakunde marxistaren sortzaileetako bat izan zinen 1962an, Israelgo alderdi komunistatik irtendako beste kide batzuekin. Lehenak izan zineten sionismoarekin apurtzen.

Hala da. Israelen aitzindariak izan ginen esaten proiektu koloniala zela sionismoa, hau da, kolonizatzaileen eta kolonizatuen arteko gatazka baten aurrean geundela. Alderdi komunistak ere ez zen hori esateko gai, une hartan arduratuago baitzegoen Sobiet Batasunaren aldeko defentsa irmoan. Guk, ordea, sakonki kritikatu genuen eredu sobietarraren burokratizazioa, eta horregatik utzi genuen alderdia.

Matzpen sortu genuenean, palestinarraren erresistentzia indar politiko bezala ari zen hezur-mamitzen, eta palestinarrak askok harriturik ikusi zuten israeldarren artean ere bazeudela beraiekin batera borrokatu nahi zuten ekin-tzaileak. Israelen, berriz, traidoretzat jo gintuzten gehienek.

Zergatik desagertu zen Matzpen?

Gure ikuspegia ez zen kapitalismoarekin bateragarria. Kolonialismoaren kontra lehiatzeaz batera, saiatu ginen klase borroka Israelgo agenda politikoan txertatzen, baina gazteek ez gintuzten jarraitu. Eta poliki-poliki fakzio desberdinetan zatitzen hasi zen erakundea. Kapitalismoaren eta marxismoaren arteko kontraesanengatik desagertu zen Matzpen.

Demokrazia errealearen alde zuzendu duzu azken urteotako borroka, eta Politikorik gabeko politika liburuxka idatzi duzu horren harira. Noiz piztu zitzaizun zuzeneko demokraziaren aldeko interesa?

1960ko hamarkadan marxismoarekin etsitzen hasi nintzen, izan ere, kapitalismo modernoarekin manciatzeko gaitasun eza erakutsi zuen. Marxen ustez, gainproduktzio eredu batean oinarritzen zen kapitalismoa, eta gobernuak gainproduktzio hori kontrolatuz gero, gerrak produzituz konponduko luke kapitalismoak berezko krisia. Arrazoiketa hori zuzena izan zen XX. mendeko lehen hamarkadetan, baina zer gertatu zen kontsumismoa asmatu zutenean? Kapitalismoak gainproduktzioari aurre egiteko metodo berria asmatu zuen, eta marxismoak ez zuen egoera berriari erantzun bat emateko gaitasunik izan.

Ondoren, 1968ko maiatza piztu zenean, autogestioaren eta demokrazia errealearen aldeko ahotsak entzun nituen lehen aldiz, eta konturatu nintzen kapitalismoa ez zela soilik irabazien produktzioan oinarritzen. Ordezkaritza sistema irautili behar genuela sentitu nuen, eta pertsona orok izan behar zuela eskubidea eta ardura bere bizitzan eragina izango zuten prozesuak erabakitzeak. Geroztik horretan dihardut.



Argazkiotan, atzealdean, bere eskulturak ikus daitezke.

Demokrazia errearen aldeko nazio-arteko olatu berri baten aurrean gaudela dirudi. Askok, ordea, egungo gizarteek eredia ezartzeko heldutasun nahikorik ez dutela argudiatu dute.

Nik ez dut inoiz esan zuzeneko demokrazia paradisua izango litza-tekeenik. Giza gatazkek bere horretan jarraituko lukete. Baina ordezkari-tza sisteman, zerbait gaizki irtenez gero, beste ordezkari bat hautatzen da, ez balore sistema berri bat. Apurto ezin daitekeen zirkulu bilakatzen da prozesua. Demokrazia zuzenean ezin zaie ordezkari-erria bota, denona baita ardura. Autoikasketarako aukera itzela eskaintzen du horrek, baina ausardia ere behar da. Demokrazia errealak denbora beharko du ezarri baino lehen, eta gatazkak egongo dira erabakitzeko eskubidea monopolizatu eta erabakitzeko boterea denen artean banatu nahi dutenen artean. Hainbat

"Emakumeek aldatuko dute mundu arabiarra eta familiaren baitatik hasiko da prozesua, menpekotasun egoera ororen aurkako norgehiagoka bultzatuko dutelako"

herrialdetan piztu diren protestetan argi ikusi da sistema erreformatu eta sistema zeharo aldatu nahi dutenen arteko talka. Baina borroka hori positiboa da oso, ezerk ez baitu gatazkak baino gehiago hezten.

Egun zerk mugiarazten zaitu?

Zapaltzaile eta zapalduen artean banatzen dut mundua, eta beti lehiatu naiz zapalduen alde. Palestinar bat zapaltzen ari den Israelgo soldadua ikusten badut, palestinarraren alde jarriko naiz, baina ez palestinarra delako, makurtu arazi dutelako baizik. Eta palestinarrak hori bera emaztea zapaltzen ikusten badut, emakumearen alde egingo dut, baina ez emakumea delako, senarrak baztertzen duelako baizik. Eta emakume berak haurra zapaltzen badu, berdin. Zenbaitzuk, jatorriaren arabera ezartzen dituzte lehentasunak, eta horregatik judu askok itsuki defendatzen dute beste juduek egiten dutena.

Zapaltzaile eta zapalduen arteko dikotomia ere erabil daiteke herrialde arabiarretako protestak azaltzeko. Aldaketa sakonik ekarriko al dute?

Zaila da jakitea, baina ziur naiz mugimenduaren bigarren olatua emakumeek zuzenduko dutela. Emakumeek aldatuko dute mundu arabiarra eta familiaren baitatik hasiko da prozesua, menpekotasun

egoera ororen aurkako norgehiagoka bultzatuko dutelako. Horregatik, emakumeen askapen-mugimenduaren suspertzea biziko dugu aurki, eta Islametik ere etorri beharko da bultzada. Kontraesana eman dezake, mugimendua islamikoek herrialde arabiarretan hartu duten indarra kontuan hartzen badugu. Nire ustez, ordea, kolapsatu egingo dira, ez baitute erreallitateari aurre egiteko gaitasunik izango. ■



Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.

Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



Bazen behin...

Mahai-jolasa

4 ZAILTASUN MAILA

- Hasiberriak
- Jarraitzaileak
- Adituak
- Profesionalak

6+

Galdera-erantzunak
bost ataletan banatuta:

- Zirkulazio-aparatua
- Nerbio-sistema
- Digestio-aparatua
- Inmunitate-sistema
- Gaixotasunak

bizitza

2.200 galdera giza gorputzari buruz



39€

Harpidedunentzat

35€

Eskaerak: 943 36 86 61
info@luditoys.com

Ludi**toys**
Jantzerik gabeko jolastokiak

www.luditoys.com

**"Egin jolas giza gorputzari buruz
beti jakin nahi izan duzuna ikasiz"**

TTAKUN (H)ERRENKA

Gartxon eta Hildakoen Harana

Bi estrainaldi egun eta ordu berean: batetik, *Euskararen jatorria: Enigma europar bat* dokumentalarena, eta bestetik, “*Gartxon eta Hildakoen Harana*” filmaren estreinaldia. Bidegurutze ederra. “*Susto o muerte*” abisua jaso eta, zalan-tzarik gabe, “*muerte*” aukeratu-ko nuen bezala, “egia ala enigma” gaztiguaren eskakizunari ere “enigma” erantzungo nioke nik. Mendetan zehar bizirik dirauten enigmek izaten duten edertasun anbiguo horrekin, niri ere bai euskara Europako hizkuntza zaharretakoa dela eta bere jatorria ezezaguna dela esatea gustatzen zait. Horrek nekatu behar handia aurrezten dit. Eta gauza ederra izaten da arrasto misteriotsu bat uztea airean. Tira, euskararen jatorria zein den jakiteko kemen nahikorik gabe harrapatu ninduela asteazken hark. Beharbada, ostirala izan balitz. Hori aitzakia. Bigarren aukerari buruzko informazioa biltzen saiatu nintzen orduan: “*Gartxon eta Hildakoen Harana*”. Memoria historikoaren aldeko fantasia epikoaren aitzindari eta gailur izan diren filmen jarraipen-lana. Mundu guztiko haur, gazte eta adin guztietako ikusleak lilitatzeko moduko beste trilogia baten lehen atala. *Gartxon* gizakia, memoria historikoa berreskuratzearen aldeko ikur bihurtuta, auzipetuen aulkian esertzen da, Itzalaren konkistaren garaiko krimenak ikertzeagatik prebrikazioa egin zuelakoan, beste hainbat arrazatako Manos Limpias, Falange Española de las JONS eta Libertad e Identidad elkarteetako jaun ilunak salatuta. Baina istorioan murgildu ahala, keinuz beterik dagoela ohartuko gara: hor dago Erresumaren Gobernuak izendatutako adituen batzorde bat, Hildakoen Haraneko ugazabaren gorpuzkiak handik ateratzeko proposamena adosten duena; hor dago Hildakoen Harana Babesteko Elkarteko abokatua; hor dago Fernando Aramburuko-


CONCETTA PROBANZA



José Luis Padrón



Sarasola



Apaolaza

pulos azti germaniarra; hor dago Jaurilaritza Errioxar inperioarekin negoziazioak apurtuz... Baina errealitatea fikzioa baino askoz areago doa. Munduko edozein gizarte aurreratuk lotsatu beharko luke, lotsa izugarritz, lotsa historikoaz, eraman-ezineko moduan lotsatu beharko luke Francisco

Franco diktadore jatorrak bere buruaren distiraren alde eraikitako Hildakoen Harana bezalako genozidioaren eta gizateriaren aurkako krimena ospatzen duen leku lotsagarri monumental horren aurrean. “Hemen axola duena langabezia da, ez Franco”, aitortu du haren alaba Carmen Francok. Eta errukitasunaren ahotik bota dituen hitz horiek, ikusten da, aita bezain solidarioa eta arduratsua dela erakusten digute. Langabeziaren datuen aurrean bere kezka larria azaldu zuelako aitak, beti. Horregatik, familiaren atsedenerako eta meditaziorako enpresan jarri zituen lanean milaka errepre-saliatu politiko. Praktiketan hartu zituen, bale, baina araupean, Lanaren bitartez Zigorak Luditzeko Patronatu Nagusiaren araupean hain zuen ere, eta hil arteko luzapenaz. Ez ikustea erabaki nuen azkenean. Hirugarren bide bati heltzea erabaki nuen. Azkenean, Donostiako Mintzodromora joan nintzen, gauez, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko. Gerra Zibilean fusilatutako guztiak eta ni jarri ginen lauzpabost laguneko taldeetan banatuta, eta heriotza erregistrarako tramite oro gaur egun euskaraz egiteko daukagun aukeraren inguruan mintzatu ginen, besteak beste, berriketa lasaian kafe bat hartuz (kafeak ez omen die fusilatuei lorik kentzen). Eta oso pozik agertu zitzaizkidan denak, noski, fusilatuak izan ondoren, nahiz eta euskaldun zaharrak izan, nahiz eta euskaraz ikasten ari, euskaraz aritzeko aukera oso-oso gutxi dituztelako. ■

Munduko edozein gizarte aurreratuk
lotsatu beharko luke Franco diktadore
jatorrak bere buruaren distiraren alde
eraikitako Hildakoen Harana bezalako
genozidioaren eta gizateriaren aurkako
krimena ospatzen duen leku lotsagarri
monumental horren aurrean



GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



ZER eman behar zaio Herriari ?



Gorka Urbizu

MUSIKARIA

Zeñena

Herrizaingo Sailekoa nauzue, herrian gustura egoten den horietakoa. Behin baino gehiagotan galdetu izan didate ea beti Lekunberrin bizi izan naizen. Arraroa egiten omen, azkeneko biran hoge herrialdetik gora zapaldu dituen taldean aritu eta sorteri txikira itzultze hori. Ez dakit zergatik. Niretzat ez baita sentsazio hoberik, urruneko ezein herrialdetan gure musika haizatzen aritu eta norbere txokora bueltatzea baino. Maite dut oreka hori. Herrizaingo Sailekoa ni: beti herria zaintzen.



‘Zeñena za zu?’

galdetzen dit, *Hola*

aldizkaritik begirada

ozta-ozta altxatuz.

Hots, zeinen semea

eta zein etxetakoa



izaeraren zantzurik han-hemenka. Larraungo herri txikiagoekiko distantzia nabarmendu nahi dutenen ustez bestera, gure DNAn txertatua baitago ruralitate berezko hori (inongo zentzu txarrik gabe diot). Eta hala bedi!

Konparazione: ilea moztera joan nintzen atzo, herriko plazan lokala duen Txarorengana, ohi legez. Nik ez dakit beste inon gertatzen den, baina hemen galdera ez da “nola moztukoizut?” baizik eta “zenba denboa moztukoizut?”. Txarok badaki *kalparra* nola moztu behar didan, kontua da *zenbat* denborarako nahi dudana look aldaketa. Bere hatz lodixkeekin egina dauka kalkulua nonbait, eta badaki bi hatzeko luzera moztuz gero, bi hilabete eta erdi barru bueltatu beharko dudala ileapaindegira (demagun). Aitzitik, nire orrazkera txukundu besterik ez badut egin nahi, “hila-bete-edo moztuiaz” esaten diot, eta Txarok badaki zenbat moztu behar didan. Hori bai, beti “desfilau”, ni “moderrrrnoa” bainaiz Txarorentzat.

Hamaiketako mezatarako ilea tindatzen ari den andre edadetuarentzako ere bai, ziurrenik. “Zeñena za zu?” galdetzen dit, *Hola* aldizkaritik begirada ozta-ozta altxatuz. Hots, zeinen semea eta zein etxetakoa.

Inongo ejerzitok ezingo du sentimendu hau garaitu. ■



Nahiz eta nire herria zertxobait aldatuta dagoen. Malkorra (*La Peña*) deitu muinora igo eta goiko bista zein ezberdina den ikustea besterik ez dago. Behinola baserri zahar eta hiru estaietako pisuek osatzen zuten mosaikoa, orain, betez gero, biztanleria bikoiztuko lukeen txalet eta adosatu ejerzito batek inguratzen du. Burbuilek eraginda, ziurrenik. Higiezinaren eta txanpainaren burbuilak, esan nahi baita. Gora eta gora beti, azkenean plop egin du eta orain komeriak. Badirudi denbora izoztu zela halako batean. Setioa guztiz burutu aurreko instantean norbaitek *pause* botoia sakatu izan balu bezala. Alarma laranja. Balkoi askotan orain hizki larriz *Se vende* oihukatzen duten kartelen kolorekoa: laranja.

Alabaina, kariñoa diot nire haurtzaroaren eszenarioa izan den honi, oraindik ere badagoelako herri

TXANDAN

Amatiño



Urtarrilaren 16an beteko dira ehun urte Mungian jaio zela Marcelo Gangoi. Somorrostro Lanbide Eskolak sortzailearen mendeurrena ospatuko du eta, urtero bezala, “Gangoi” enpresa-sariak eskainiko. Baina nor izan zen?

Marcelo Gangoi izan zen, Toribio Etxebarria, Jose Antonio Agirre, Carlos Santamaria eta Jose Maria Arizmendiariarekin batera, 1936eko gerra inguruan eta ostean euskal gizartean loratutako “pentsamendu pertsonalista” hezurramitu zuten argi-mutiletakoa.

Nahiz jatorriz eta jardueraz berdinezak izan, bizi izan

Elkartzen gaituena

zuten giroa zitekeenik baketsuena ez izan arren, gizakiaren defentsa hartu zuten goiburutzat eta, alderdikerien gainetik, borondate oneko hiritarren arteko elkartasuna eragiten ahalegindu, beti ere elkartzen gaituena azpimarratuz eta bereiz gaitzakeena uxatuz.

“Elkartzen gaituena” aldarrikatzea ez da berria. Euskal abertzaletasunak urteak (omen) daramatza horren guran. Baina arazoa ez da berdin samarrak biltzea, berdinezak elkartzea baizik. Eta horretan ez dugu asmatu. Ahaleginik ere ez dugu egin. Ez dugu nahi izan. ■



Mikel Zurriano

EHUKO IRAKASLEA

Izotzaldia

Euroa eta euroguneko herrialde periferikoak *laguntzeko* duela urte eta erdi NMFK eta Europako Batasunak (EB) abian jarritako doikuntza politikak porrot egin dute. Austeritate politikak aktibatu dituzten herrialdetan ez da iragarritako defizitaren eta zor publikoaren kontrola gauzatu. Aldiz, politika horien neurri fiskal murriztaileek ekonomia atzeraldia berpiztu egin dute herri horietan ez ezik Europa osoan. Europako merkatuan bere esportazioen hiru laurdenak saltzen dituen Alemania ere ukitu egin du atzeraldia. Doikuntza politiken porrotak eta Europako Batasuneko ahultasun politikoak euroa bera eta Europako finantzak kinka larrian utzi dituzte.

EB eta eurogunearen esparru eta garapen eta lankidetzaren instituzionalaren aldaketa sakona ezinbestekoa da etorkizunean egonkortasuna irabaztean. Batzuentzat bidea integrazio fiskala, Europako Altxor bakarra sortzea, eta elkartasun ekonomikorako mekanismoak indartzea da, besteak beste. Beste batzuentzat —Alemania eta Frantziarentzat— eurogunearen zatiketa da jorratu behar den bidea. Baina, epe laburrean euroa bera dago jokoan eta bertako finantza egonkortasuna. Alemaniako botereguneko sektore ortodoxoenek Europako Banku Zentralarekiko jarrera



DANI BLANCO

malgutzeko prest dauden (artikulu hau argitaratu orduko) jakin(g)u dugu ostiral honetan bertan. Europako Finantza Egonkortasunerako Fondoaren kopurua gehitzeko zailtasunak tarteko, EBZ da gaur egun suhiltzailearen funtzioa bete dezakeen bakarra. Eragile gehienek aipatzen dute epe laburreko soluzio erraz eta eraginkorrean EBZk bonoak jaulkitzea dela alegia. Baina aukera hori Alemaniak ez du onartzen eta badirudi zeharkako bide bat erabiliko dela: EBZk NMFK maileguz ematea gero azken honek fondo horiek Europako herrialdeetara biderra ditzan. Jakina da NMFK kudeaketa indartu honek lehengo lepotik burua ekarriko lukeena batez ere Alemaniak eurogunean ezarri nahi dituen mekanismo fiskal zorrotzagoak —defizit zero eta hori betetzen ez duenarentzat zigor automatikoa— abian jarriko badira.

Nolanahi ere, Alemania bera ere ataka larrian dago, hautu gogorrean eginez gero bere bankuek utzitako

maileguak berreskuratzea zaila suertatuko baitaie. Areago, bere menpekora den Europako merkatuak hondoa jo lezake eta horrek Alemaniako esportazioek ere. Honenbestez, Europako ekonomia hoztua izozteko arriskua bistakoa da. ■



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



betea oso igaro duguna. Ostiral gauetz, Miarritzen presoan aldeko arratsa izan genuen, argazkigintza eta Herrialde Berdea dokumentala ikusgai. Lagunak ikusteko parada, dispartzioaren latza ezagutzen ez duen inor ez zegoen, baina nago Iharra, Xenki, Mikelon militanteen berri ez zuten gazte andanak ikasi zuela garai bateko borrokek gazte haiengan izan zuten eragina, Hibaí Castoren filmak gordinki erakutsi ziguna. Eta bestetan ez bezala, frantseseko azpitituluz hornitua. Biharamun goizean ABren batzarra izan genuen ohi bezala Uztaritzen. Bezperan beste jendez ospa-

Asteburu

tuak, bateratze haizeak ekarri zion giroari. Ez nuen Miarritzeko lagunik bertan ikusi, elez helburu berek gidatzen gaituztenak elkarrengandik urrunegi gaudenaren seinale. Ez dugu zeregin makala gure aitzinean fundamentuzko zerbait egingo badugu. Igandean Hernaniko Galarretara ezagutzen ez dugun Gpuntua aitzaki. Miarritze eta Uztaritze baturik hamar halako jendez beterik. Epaimahaiaren iritziz Apalategik irabazi zuen, nik bere azken agurrean Realaren garaipenaren berri eman izana eskertu nion, nahiz eta Anoetatik lagun minen mezuek lasaitua ninduten. Orain Durango. ■



BERTSO BERRIAK

Agin Rezola

Bertso berriak, Tunezeko oporraldiari jarriak



ALBERTO ELOSEGI/XDZ

I

Tunezeko ibileran
zer moduz ibili geran
kontatuko det errimak jarritz
elkarren ileran,
baibaitakit zer nahi dedan
aukeratutako teman:
nola ibili naizen esan ta
inbiriya eman.

II

Kartago herri ezitia
ta askatasun eskia
lortzeko Roma ta Bizantzio
onenak ez dia.
Ez da zaila bereiztia
garai bat eta bestia
baino miresten zan nortasuna
armaz babestia.

III

Kaliek eskaparate
premirik ez dute bate
La Medinako merkatariek
sena baitaukate.
Erosketetan jo ta ke
zenbat korri ta regate!
Merkatariek Lionel Messi
esaten didate.

IV

Neskalaguna medio
ibili gera de dio
posturik postu salerosketan
ze erremedio!
Haserrian ondorio
oraindik sua dario
entzun dunetik balio dula
sei dromedario.

V

Hori bai, etzazu uste
harrapatzen bazaituzte
arnastu dezun haizia ere
salduko dizute.
Edozer gauzaren truke
propina eskatzen dute,
tabakuaren makinak ere
eskatuko luke.

VI

Hau, hori, hura ta beste
erotu egin zaitezke,
opariko-hamar euro gastatu
ditut batez beste.
Bat Dinare baten eske
ta nik ez dala hainbeste.
Euro erdi bat borrokatzera
iritxi gaitezke.

VII

Jatetxe baten bezero
egiten gera goizero.
Azal zuri hau ezkutatzerik
ezin da espero.
Batzutan zientio bat zero
jartzen dizkigute gero,
urtetan eurei kendutakua
bueltatzeke edo.

VIII

Zerbitzaria zelatan
bost izarreko gelatan
baibaitakite ez gabiltzala
dinarrien faltan.
Denok dakigu nork zakan
diru gehiago poltsatan.
Orain etxera bueltatu bihar
naizenaz lotsatan.




DOINUA: Dozena bat bertso berri



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

Zinema



Lilura hauskorra

Arriya, Urte berri on, amona!, Bertsolari, Bi anai, Azken bidaia, Gartxot. Denbora tarte laburrean, euskal ekoizpenek bete dituzte zinema-aretoak eta karteldegian lauzpabost aste irautea lortu dute filmetako batzuek. Ezohikoa den produkzio kopuruaz, lanen kalitateaz eta publikoaren erantzunaz galdetu diogu hainbat zinema zaleri.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Argazki muntaia: Garbine Ubeda Goikoetxea

POZGARRIA DA euskal filmak areto komertzialetan ikusi ahal izatea, “hori delako guda-zelaia eta zinemari neurria hartzeko guneetako bat”, dio Begoña del Teso zine kritikariak. Geroz eta jende gehiago ari da zinema ondo ikasten, leku onetan, eta horren adierazgarri dela gaineratu du, baina ardoarekin bezala, uzta kontua izan ohi dela, “eta aurtengo uzta bikaina suertatu zaigu”. Harkaitz Cano idazlearen ustez, halako estreinaldi pilaketak kasualitatearen fruitu dira. *Zinea eta literatura. Begiaren ajeak* liburuaren egilearen esanetan, “niri gehien poztu nauena barietatea da, bata bestearekin zerikusirik ez dutelako pelikulek, ez estilistikoki, ez genero aldetik, ez hizkuntza erregistroari dagokionez”.

Erakunde publikoen diru-laguntzek izan dute zerikusirik uzta emankor honetan, Miren Manias ikaslearen aburuz. Euskarazko

zinemaren finantzazioari buruzko tesia egiten ari da Manias EHUUn. Bere hitzetan, ordea, egoerak okerrera egin dezake epe laburrean, krisiarekin murrizketak aurreikusten baititu diru-laguntzetan eta ekoizpen kopuruak behera egingo luke. “Kopuruaz gain, hala ere, kalitatea hartu behar da kontuan, oreka bilatu, pelikula gutxiago egin arren, aurrekontu handiagoa izan dezan lan bakoitzak, kalitate ahalik eta onena”.

Koldo Almandoz zine-zuzendaria ere ez du itsutzen euskal zinemaren hilabeteotako loraldiak. Batetik, karteldegian hainbeste euskal film egotea ona den arren, hiru hilabete-tan guztiak batera estreinatu izanak kezkatzen du, gehienbat jakinik ez dagoela guztientzako adina publiko: “Ez dakit ez ote den ari gertatzen Durangoko Azokaren Sindromea, Donostiako Zinemaldiaren ostean



"Euskarazko filmak ez dira nahikoa promozionatzen. Estreinatzen da pelikula eta inguruko jendeak jakin ere ez daki askotan"

MIREN MANIAS, IKASLEA

dena estreinatzea, jaialdiaren tiradizoari jarraiki, eta susmatzen dut hauetako pelikula berri bat jartzen dutenean ez diola lekua kentzen banatzaile handi baten pelikulari, beste euskal pelikula baten ordeztartzen dela bai- zik". Horregatik, denboran banatzea eta estreinaldiak beste modu batean egitea beharrezkoa ikusten du zuzendariak. Bestetik, azaldu digu lan kopuruez eta horien iraupenaz gain faktore gehiago ere hartu behar direla aintzat: "Ikusten dugu film asko dagoela karteldegian eta lilura efektu batera eraman gaitzake horrek, baina datuak eskutan, *Aupa Etxebeste!* ikusi zuen jende kopurutik urruti geratu dira estreinaldi hauek. Gustatzen zaigu aldarrikatzea euskal zinema, baina gero errealitateak dio ez garela aretoetara joaten. Arrazoi asko daude atzean: kontsumo ohiturak aldatu dira, telebistan eman arte itxaroten du jendeak, edo espero du herriko kultur-etxean dohainik emango diotela aurre- rago...".

Mimoa, pazientzia, promozioa

Ez, ez da lan erraza jendea zinema-aretoetara erakartzea, eta gainera, euskarazko produktuak kontsumitzeko ohitura falta zaigula

"Denak batera estreinatuta, susmatzen dut hauetako film berri bat sartzeak ez diola lekua kentzen banatzaile handi baten pelikulari, beste euskal pelikula bati baizik"

KOLDO ALMANDOZ, ZINE-ZUZENDARIA

uste du Maniasak. Promozioa izan daiteke bidea, euskarazko filmak ez direla nahikoa promozionatzen baiteritzo, aurrekontu arazoak tarteko: "Estreinatzen da pelikula eta inguruko jendeak jakin ere ez daki askotan". Nolanahi ere, industriak agintzen du: "Banatzaile handiek presioa egiten diete aretoetako jabeek, superproduktzioa jarri dezaten, txikiak ordutegi txarretara eta egun gutxiko emanaldietara alboratuz, beraien katalogoe- tako pelikulek lehentasuna ez badute hurrengo hilean ez dietelako halako eta halako filma ekarriko".

Sare komertzialean arrakastatsu aritzeko sekretua, neurria hartzea da, Del Tesoren esanetan: pelikula mimatu behar du egileak, ekoizleak, banatzaileak, aretoak. "Aretotzar batean ematen bada filma eta 50 lagun joaten badira ikustera, erraza da esatea emaitza txarrak lortu dituela, baina areto txiki eta majo batean jarriz gero, 100 bat ikuslerentzako batean, 50 lagunekin beteta dago sala erdia. Neurria eta mimoa dira gakoak, hasieratik bukaeraino". Hori, eta pazientzia. Aretoe- tako jabeek pazientzia eskatzen die Del Tesok, "euskarazkoak bakarrik ez, gainerako filmak ere ikusi nahi ditugulako, zinemazaleok gutxi gara eta pelikula guztiak ikusi ahal izateko astia behar dugu".



Ezker-eskuin, 25. orritik hasita: *Arriya, Bertsolari, Azken bidaia, Bi anai, Urte berri on, amona! eta Garxot, konkista aitzineko konkista* filmen fotogramak.

"Aretotzar batean ematen bada filma, erraza da esatea gaizki doala, baina 100 bat ikuslerentzako batean, 50 lagunekin beteta dago sala erdia. Neurria eta mimoa dira gakoak"

BEGOÑA DEL TESO, ZINE-KRITIKARIA

"Gehien poztu nauena barietatea da, bata besterekin zerikusirik ez dutelako, ez estilistikoki, ez genero aldetik, ez hizkuntza erregistroari dagokionez"

HARKAITZ CANO, IDAZLEA

Kalitatez ausart eta dotore

Emankorra izateaz gain, oro har kalitate onekoa iruditu zaie aurtengo eskaintza elkarrizketuei. Euskal zinematik urrats bat harago eman duela diote eta bi ezaugarri azpimarratu dituzte denek: aniztasuna eta ausardia. Cano-ren hitzetan, "sortzaileen apeten arabera lanak dira, telebistatik aske, eta onak. 'Duin' hitza erabili izan da eta hitzak badu kasik konnotazio peioratiboa, baina duina baino, dotorea iruditu zait emaitza, nik gustura ikusi ditut lanak eta gauzak pixkanaka bestelako norabidea hartzen ari direnaren zantzu izan daiteke". Pelikuletan erabilitako euskararen naturaltasuna eta oparotasuna ere eskertu ditu Del Tesok, "euskara berdaderoa, ez museoko

pieza bihurtua". Almandozek, azken bi urteotako salto kualitatiboa nabarmendu du: "Ikusi besterik ez dago, filmak beraien artean zein ezberdinak diren, zein publiko ezberdinari dauden zuzenduta, nola zinema kontzeptu ezberdinak jorratzen dituzten... Bide berriak jorratzeko gogo dago eta apurka-apurka jendea ausartzen ari da horrelakoak ekoizten".

Izenburu kuttunak

Barietate hori azpimarratzearren, proposamen erabat ezberdinak egiten dituzten hiru lan hautatu ditu Koldo Almandozek, pelikularen bat nabarmentzeko eskatu diogunean: "*Urte berri on, amona!, Bertsolari* eta *Bi anai* arrakastatsuak dira bakoitza bere arloan, eta harro sen-

iRUÑAZARRA
TaBERNA • JaTeTXea

Merkaderes kalea, 15 · 31001 IRUÑA (Nafarroa)
T 948 22 51 67 · info@irunazarra.org · www.irunazarra.org

ogiaren egia

Zatoz eta ezagutu garai batean egiten ziren ogiak, lehengo osagai eta teknikekin

Galparsoro
OKINDEGIA

Antzinako ogiaren kabia bihurtu baitugu denda zahar berria

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

Amona maltzurak, antzinako heroiak eta apustu zentzugabeak

KRITIKA KONTRAJARRIAK jaso arren, abuztu aldean jende ugari eraman zuen aretoetara **Arriya** filmak. Alberto Gorritiberea zumaiaarraren lanak bi familia-aren arteko apustua zuen ardatz, gorroto zentzugabeez, tradizio pozoitsuez eta maitasun salbatzaileez hitz egiteko. Urri-azaroan, Donostiako Zinemaldian estreinatutako euskal ekoizpenek errenkadan egin zuten jauzi sala komertzialetara. Komedia beltza, tragedia eta thrillerra uztartuz **Urte berri on, amona!**-n Telmo Esnal zarauztarrak gidaturiko genero saltsak kritika eta publikoaren oniritzia jaso zuen. Bi dokumental ere izan ditugu pantaila handian: Asier

Altuna bergararrak bertsolaritzari eskainitako **Bertsolari** eta Bigarren Mundu Gudan aliatuak laguntzeko sortu zen Comète sareari buruzko **Azken bidaia**, Iurre Telleria eta Enara Goikoetxea hernaniarrek zuzendua. Bernardo Atxagaren eleberria abiapuntu, esperimentaziotik asko duen **Bi anai** lana ekarri du berriki Imanol Rayo iruindarrak. Eta azkeneko estreinaldia ezohiko formatuan iritsi da, helduentzako animazioa: Asisko Urmeneta iruindarrak eta Juanjo Elordi markinarrak **Gartxot, konkista aitzineko konkista** aurkeztu dute, Nafarroako Erdi Aroko bardoaz.

titzeko modukoak, munduko edozein lekutan harrotasunez erakutsi daitezkeenak”. Begoña del Tesori izugarri gustatu zaio *Bi anai*, Imanol Rayo zuzendariaren atrebentziagatik –“lortu du Atxagaren mamutik libratzea”– eta bestelako zinema batera gerturatzeagatik, bisuala, libre. *Bertsolari* ere aipatu du, bertsoari behar den doinua eta irudia ematen diolako, “gazte-egiten du, emakumetu, eta zinema bihurtu”. Harkaitz Canori beste proiektu batek

deitu dio arreta, hau ere arriskatua delako, kontzesiorik gabeko helduentzako animazioa: *Gartxot*. “Gustatu zait aurrekontu edo diru eskasia nola jakin duten baliatzen, pertsonaiek profilez eta aurrez aurre begiratze hori oso jarrera inteligentea iruditu zait. Harritu egin nauen pelikula da eta merezi du”.

Abiatutako zidor berrien mai-lari eutsiko al dio 2012ak. ■



EINSTEIN vs. BOHR

MUNDUA ULERTZEKO BI MODU

Albert Einsteinek ez zituen onartu mekanika kuantikoaren ondorio batzuk, baina oraindik ez da frogatu ondorio horiek faltsuak direnik. Niels Bohr-ek, aldiz, defendatu egin zituen, eta eztabaida luzeak izan zituzten. Bi genioen arteko eztabaidak ulertzeko liburu egokia da hau.

Zizpiak

QUANTUM EINSTEIN, BOHR eta errealitatearen izaeraren inguruko eztabaida handia.

Egilea: Manjit Kumar

ELHUYAR edizioak

WWW.ELHUYAR.ORG/EDIZIOAK

Zelai haundi, 3. Osinalde Industrialdea. 20170 Usurbil (Gipuzkoa) Tel.: 943 36 30 40 - www.elhuyar.org

Gipuzkoako Foru Aldundia

2011ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa


G-PUNTUA

FINALA

ABENDUAK 18

DONOSTIAKO ILLUNBE ZEZEN PLAZA

16:30ean



Liburuak

KRITIKA

Nola izan liteke sortu nauen hura, niretzat ezer ez den hura bezalakoa?

Helduen literatura

Gema Lasarte

“INORK GONBIDATU ez nauen ehorzketa batera joateko egoera gogaikarrian suertatu naiz, bigarren aldiz nire bizitzan. Lehenengo aldia orain dela hamar urte izan zen nire umearen aitaren ehorzketan. Bigarren aldia gaurkoa, neronen aitaren ehorzketan”. Horratx eleberri honen muina, lehen orrialdean erakusleihu dena.

Lehen orrialdeak eztanda egiten dio Anne Berest-i eta irakurleari. Gainontzeko orrialde guztietan eztanda horri dagokion indarrari sintaxi eta semantika egokia bilatzeari lotzen zaio Berest. Esango nuke maisutasunez lortzen duela kontakizunaren harilkatze hori, modu zirkularrean eta zehatzean. Eta hortxe legoke Goncourt sarietarako finalista izan den eleberri honen inaktua.



Protagonista bakarra du eleberriak kontatzailerik, bi ahizparen artean hezia, eta bi ahizpen arteko espazioan kontatu beharrekoa kokatzen duena, baina beste bi gizonen artean

Bere aitaren alaba.
Anne Berest.
Itzulpena: Jon Muñoz.
Alberdania.
112 orrialde. 14,80 euro.


bizitako denboran narratu beharko duena. Kontu asko dira denbora eta espazio ezberdinetan bizi izandakoak eta gai bakarra, sendi eta harreman absurdoen kate luzea edota ezusteen sare zabala.

Baina sintaxi honen dotorezia eta indarra pertsonaien kateatzean legoke, pertsonaia batetik bestera baitaroa kontaktatzen da galerarik gabeko ibilbidean. Pentsamendu zehatza eta lehorra da pertsonaien koro honetan ahots bakarrak aditzera ematen diguna. Izan ere, gizartea ispilu, sendiko hartu-emanen eta beronean eman ohi diren ezintasunez eta gezurrez mintzatu zaigu Berest; eta horretarako emakume bat aukeratu digu pertsonaia askoren arteko kate-begi, gaitzat alabatasun eta amatasun absurdo bat duela gidari.

Sendi harremanen eta elkarbizitza modernoaren irakurketaz gain, espero ez diren bizi konstanteen leherkaria bilakatzen da testuaren hasieratik bukaerarako promenadea. Lehen orrialdeko eztandatik azken orrialdera arte narrazioak tentsioa ez baitu galtzen, are gehiago, orriak pasa ahala interesa pizten doa ezusteen eta kontakizunera sortzen diren pertsonaia berrien harira. Bada gurean emakume idazle gazte bat narratzaile aparta eta gaien aukeraketan erabat samina, Anne Berest irakurritakoan testuarteke gisa gogoan izan dudana. Testuarteke edota paratestu, kontua da 32 urte besterik ez eta lehen eleberria idatzi duen emakume honek, Alberdanian Jon Muñoz lagun, euskal literaturari ekarpen ederra egin diola eta ezin bestela izan, Sofoklesek Edipo Erregearen ahoan jarritako galdera baitu sarreran aipu: “Nola izan liteke sortu nauen hura, niretzat ezer ez den hura bezalakoa?”.



txalaparta



www.txalaparta.com

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Collage.
Governors.
Mauka.
Iraupena: 39'36".
10 euro.

Sentimenduz eta aniztasunez osatutako puzzlea

KOKAGUNEA Arrasaten duen taldeak diskoetxez aldatu du eta hirugarren lana dakarkigu. Abestiak konposatzerakoan J. Sangek azken urtean taldean gitarra jotzaile aritu den Keu Agirretxea iraganeke bidelaguna izan du alboan eta emaitzan nabaritzen da: gitarrek are eta presentzia handiagoa dute. Taldeak aniztasun eta kolore handiko collagea osatu du eta mimoz zaindutako alderdi asko ditu: Amets Arzallusek, Fredi Paiak, Eider Zumaldek eta Mikel Etxa-

buruk hitz hunkigarriak idatzi dituzte (abestearen amildegia, espetxeak, Palestina...); Joserra Semperenak hammondarekin eta teklatuekin bestelako giroa eman die zenbait kantari; eta estilo aldeetik, disko zabalena dugu hau. Taldeki-deen hastapenetako heavya eta hard-rock gogorra ageri da, baita punk-rock gitarroena, rock elektroniko dantzagarria, metala eta pop-rocka ere.

www.myspace.com/governorszone

J. Sang - Governors

«2000. urtetik Israelek 800 umetik gora erail ditu, ezin beste alde batera begiratu»

Collage bat egitea esperimentua da. Nola bizi izan duzu disko honen sortze prozesua?

Lan egiteko modua desberdina izan da bai hitzei dagokionez, baita konposatzerakoan ere, Keurekin urrutitik lan egin dudalako. Une batzuetan guztia kontrolpean ez izateagatik bertigoia izan dut, baina pieza guztiak heldu eta maketa egiterakoan disfrutatzen hasi nintzen.

Diskoetxe berri baten aldeko apustua egin duzue. Zer eskatzen diozue diskoetxe bati?

Lan egitea eta etorkizunari begiratzeari. Askotan taldeak lan handia egin, diskoetxe bati diskoa eman eta bi astekeko promoaren ostean, luzaroz ez da argitaletxetik inolako mezurik izaten. Maukakoei gure managementa daramate, hurbil ditugu eta etekin azkarra bilatzen ez duen jende langilea dela erakutsi digute.



Eskuinetik bigarrena da J. Sang, Governors taldeko abeslaria.

Zer sentitzen duzu *Larru azaletan* kanta abestean?

Oso berezia da. Amets Arzallusek guretzat idatzi zuen eta azaldu zigun idazterakoan ezertan pentsatu gabe kanta berak piztu zizkion sentazioak jarraitu zituela. Hori ikaragarria da! Eta ni hitz horiekin oso identifikatuta nago.

Nolakoa izan da *A song for Bobby* kanta Bik MacFarlaneren laguntza izatea?

MacFarlane guk egindako bertsioaz oso harro dago eta hala esan zidanean asko hunkitu nintzen. Askotan kanta konposatzen edo aztertzen ari naizenean ez dut halako detailetan arreta jartzen, baina geldidune bat egin eta MacFarlanek Long Keshen lagunak hiltzen ikustean bizi izandakoa pentsatuz oilo ipurdia jartzen zait. Bere

parte-hartzea ikaragarria da guretzat.

Palestinari buruz sarritan abestu duzu. Askok hunkitzen zaituen al gaia da?

Bai, Mikel Etxabururi hango umeei buruz idazteko eskatu nion. 2000tik Israelek 800 umetik gora erail ditu, atxilotuak eta torturatuak ere badira, eta 35.000 gaizki elikatuta daude. Ezin beste alde batera begiratu. ■



Ezpalak

JON TORNER


Integrazioaren aldeko artelan enkantea egingo dute Senperen



HAUR EZINDUEN INTEGRATZIOA xede duen Seaska ikastoleko lan-taldeak Euskal Herriko hamahiru artistaren artelanak jaso ditu dohaintzan. Obra horiek enkantera aterako dituzte hilaren 18an, Senperen (Lapurdi) Larralde etxean. Besteren artean, Irkus Robles Arangiz, Rosa Valverde, Michel Hacala, Agurtzane Andueza, Xabier Soubelet,

Gorriti, Nestor Basterretxea eta Zoe Bray (argazkian) artisten obrak jarriko dituzte salgai. Integrazio Batzordeko presidenteren hitzetan, hainbat artista haur ezinduen eskolaratzearen alde bat egiten dutela ikusteak "bihotza hunkitzen du". Dioenez Gabonak hurreratzen ari diren honetan, "opari ederra" dira enkantera aterako dituzten artelan horiek. Tamaina desberdineko litografiak, margolanak eta eskulturak jarriko dituzte salgai. Hasierako pezorik garestiena Irkus Robles Arangizen *Haurrak* izeneko margolanak izango du: 1.000 euro.

Ikusmin handia piztu du Gipuzkoako bertso finalak



BEÑAT GAZTELUMENDI (argazkian), Jexux Mari Irazu, Unai Agirre, Agin Rezola, Alaia eta Jon Martin, Iñaki Apalategi eta Aitor Sarriegi lehiatuko dira Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako

finalean, hilaren 18an Donostiako Illunbe zezen-plazan. Antolatzaileek jakinarazi dute Internetez salgai jarritako sarrerak agortu egin direla dagoeneko. Herrietako salmenta puntuetan sarrerarik sobratuko balitz, berriro jarriko lirateke salgai Internetez, ostira-lean eta larunbatean. Sarrera arruntak 18 euro balio du, gazteentzako sarrerak 8 euro eta Bertsozale Elkarteko Bazkideentzako txartelak 12 euro. Finala arratsaldeko 16:30ean hasiko da. Informazio gehiagorako: www.gpuntua.com/saioak/donostia.

Librezale webguneak eta Kulturize aplikazioak jaso dituzte, besteren artean, Internet & Euskadi elkarteak sustatutako Buber Sariak. Hamar esparrutako webgune eta proiektu teknologikoak saritu dituzte 9. edizioan. Software libreko aplikazio edo webgunerik onenaren saria irabazi du www.librezale.org webguneak, eta euskarazko proiektu teknologikorik onenarena Android eta iPhonerako Kulturize (<http://bit.ly/p5nZBJ>) aplikazioak. Euskal Herriko kultur ekitaldiak agenda bakarrean bildu eta erabiltzaileen esku jartzen ditu, doan.

Gainerako irabazleak:

- Web korporatiborik onena: www.lasterketak.com
- Komertzio elektronikoaren esparruko onena: www.deskontu.com
- Herritarrentzako zerbitzurik onena eskaintzen duena: www.justizia.net
- Proiekturik berritzaileena: Babelium Project
- Start-up proiekturik onena: Ideable
- Internazionalizazio proiekturik onena: Basque Culinary Center.
- Publizitate kanpainarik onena: ilowcost.
- Proiektu solidarioa: 'eitbmaratoia'
- Sari berezia: Gorka Palazio.



● Maria Bayo soprano nafarrak *Euskonews & Media* webgunean esanak:

«Hedabideek oso informazio gutxi ematen dute operaz, eta hori dela eta, ez dago gure eguneroko bizitzan. (...) Penagarria da. Edozein dendatan sartzan zarenean, entzuten duzun musika pop-talde batena da beti; ez da inoiz

musika klasikorik entzuten, inon ere ez. Nola sustatu-ko dugu, jende batzuek musika klasikoren berri ere ez badute? (...) Oso ohikoa da antzoki guztietan partitura berberak egotea. Hori da ezagutzen dena eta publikoak eskatzen duena. Horrenbestez, gorpil zoro batean sartzan gara. Beste erreperitorio batzuk erabiltzea sustatu behar da. Erreperitorio zaharrak ere erabili behar dira, beren garaian garrantzi handia izan zuten konpositoreenak. Oso garrantzitsuak izan ziren eta galdu egin dira. Erreperitorio zoragarri hori berreskuratu behar dugu. Nire ustez, garrantzitsua da gurearen aurreko ondarea berreskuratzea».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

Aitaren izenean

Sofía y el negro. Judith Vanistendael.
Norma / Graphic Journal (2010).
150 orrialde, zuri-beltzean.



AFRIKAR jatorriko errefuxiatu politikoez Belgikan bizi duten egoeraz mintzo da komiki (neurri batean) autobiografiko hau. Judith Vanistendael-ek bi zatitan banatu du liburua. Argi bereizi ditu biak, ez marrazteko estilo diferenteak tartekatuz, narrazioari ikuspuntu desberdinetatik helduta baizik. Sofiak eta Togo-

ko Abú-k elkar ezagutzen dutenekoia kontatzen du aurreneko zatia. Eurak dira protagonista nagusiak, baina bien arteko maitasun istorioa Sofiaren aitaren ikuspuntutik jaso du autoreak. Alabaren hautua ez du oso gustuko, eta ahalegin franko egiten du egoerak

gain har ez diezaion. Ironia ederra dario lehen zati horri; irakurleari sarri egingo dio ihes irriñoak, Homer Simpson ganorabakoaren ukitua duen gizon-kotearen ateraldi eta hausnarketak medio. Mundiala da, adibidez, emaztea albaniar-kosovoarrez hitz egiten hasi eta berak buruan martiztarrak irudikatzen dituenekoa, inguruan duen errealtatea ulertuko ez balu bezala... Komikiko lehen zatiarekin geratzen naiz, narrazioaren originaltasunagatik bereziki.

Bigarrenean Sofiaren ikuspuntua nagusitzen da. Abú jada ez da berarekin bizi, eta haren alboan bizi izandako une gozo eta mingotsak oroitzen ditu. Lehendabiziko parteko amesgaiztoek dimentsio tragikoagoa hartzen dute bigarren zatian, liburua borobilduz. Norma argitaletxeak salaketa-kazetaritza eta nobela grafikoa uztartzen dituen *Graphic Journal* bildumaren baitan plazaratu du, Siziliako mafia hizpide duen eta ARGIAren 2.280. zenbakian aipatu genuen *Branaccio* bezala. Bitik bi. Bildumak itxura polita du oso.



argia

Salgai
dagoeneko!

EGURREZKO
TAULA

50€

EGUTEGIA
opari20
12
argia

EGUTEGIA

8,50€

argia
20
12
argiaBURNIZKO
EUSKARRIA

5€

2012ko egutegia

- Eduki historikoak
- Landareei buruzko bitxikeriak
- Txisteak
- Santuak
- Euskal izendegia
- Eguzkia, ilargia eta mareak

ESKAERAK

☎ 943 37 15 45

denda@argia.com

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak

BITXIA BERTARATU	PERTSONAIA- REN IZENA ARRAIN IZENA	ALTUA, GARAIA	PAIRE BAT DAUKAT	MODU OSTRUKAREN ANTZEKO HEGAZTI	FRUTU BILKETA PERTSONAIA- REN ABIZENA	HESI EREMU LEGATSUA
		INTERPRETE, ITZULTZAILE OINARRIZKO EDARI				
BARANO IA BATERA			MAITASUNEZ SEGUNDO			
				NAIZ PLATINOA		
PARKE ZOO- LOGIKO	40 ERROMATAR ZENBAKIZ GARI-UZTA		DANI BLANCO		ADIA GIZAKIAREN- TZAT EZIN- BESTEKOA DEN GAS	
		MADARIA		ORDAINDU BEHAR DENA ZIRIKADA, SASTADA		HEGAZKIN
EGUNAREN ZATI ILUN NAIZEN HAU						
	DEUTERIOA AMORE EMAN			BIZKOR DANTZAKO PAUSOA		
SUARI DARIONA GERRAKO ARMA		ERA, MOLDE LANDA, SALBU	DAGO IZOTZ, HORMA	GAR, LEHIA BIZI DU, NIRI		
						EKIALDEA ARTSENIKOA
LOGURAREN EULI FESTA			ITZALTSUAK AZKEN LETRA			
		GANIBET			ERABAT, TXIT	

Kike Amonarizen umorea

Eztabaida ingelesa

Igande goiza da. Bi aitona eta amona bat Oxford Street-eko banku batean eserita. Ez dago trafiko eman handirik. Halako batean auto beltz bat pasa da beren aurretik, dezenteke abiadu-



ran. Handik bost minutura zera esan du aitona batek:

– Rolls Royce Phantom bat zen!

Hamar minutuko isiltasun luzearen ondoren, beste aitona:

– Ez! Bentley Arnage bat zen!

Handik bost minutura, amona bere onetik aterata altxatu da:

– Ezin ditut eztabaida gogaikarri hauek jasan!

Soluzioa

P	A	N	A	G	O	A	I	A	I	O	S	O
U	E	R	A	Z	I	T	E	Z	O	R	X	I
E	B	E	R	A	I	T	E	Z	O	R	X	I
B	E	R	A	I	T	E	Z	O	R	X	I	O
G	A	D	I	R	A	I	T	E	Z	O	R	X
A	N	G	U	R	A	I	T	E	Z	O	R	X
J	O	A	N	G	U	R	A	I	T	E	Z	O
J	O	A	N	G	U	R	A	I	T	E	Z	O
B	A	T	E	R	A	I	T	E	Z	O	R	X
Z	O	O	G	A	D	I	R	A	I	T	E	Z
N	I	K	E	A	G	D	S	U	R	E	G	A
M	E	T	R	A	I	L	A	D	O	R	E	E
T	S	E	T	S	E	I	L	L	O	N	A	K
J	A	I	A	A	I	Z	T	O	O	S	O	

MIHILUZE

Froga berriekin gozatu eta barre egiteko



- Erantzuna emanda asmatuko al zenuke zein den galdera?
- Eroglifikoak deszifratzeko bezain ero al zaude?

Telebistako programa arrakastatsuan oinarritua

Eta beste hainbat froga dibertigarri...

- Zer da zer?
- Tribuaren berbak
- Potokumeak
- Horma

... zure hizkuntza aberasteko.



Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Kotoi naturalaren zuntzez egindako transistoreak

CORNELL UNIBERTSITATEKO (AEB) Juan Hinestroza ikerlariak zuzendutako nazioarteko talde batek transistoreak garatu ditu kotoi naturalaren zuntzak erabiliz.

Lorpenak arropetan gailu elektronikoak txertatzeko aukerak zabaltzen ditu. Hainbat erabilpen izan ditzake horrek. Adibidez, tenperaturaren arabera ez legoke gaizki berotze edo hozte-sistema bat aktibatzea; bihotzeko



SOUTHCAROLINA1670.WORDPRESS.COM

arazoak dituztenei, edo punta-puntako kiroletan aritzen direnei, bihotzaren erritmoa eta arteria-presioa monitorizatzeko balio diezaieke; edo zergatik ez egin ordenagailu bat kotoi-zuntzetan oinarrituta? Bidea hasi baino ez da egin, eta denborak erakutsiko digu erabilera praktikoetan gauzatzzen den ala ez.



200 urte iodoa identifikatu zutela



DOCTORALIAF.BLOGSPOT.COM

1811KO AZAROAN, Bernard Courtois kimikari eta enpresari frantziarrak iodoa aurkitu zuen ustekabean, itsas algen hondakinekin saiakerak egiten ari zela. Gogora dezagun, labur bada ere, iodoaren erabilpen esparrua gaur egun.

Osasungintzan, tiroidearen funtzio-namenduan duen funtsezko zeregina da ezagunenetakoa, baina zaurietarako antiseptiko gisako erabilera ere oso

zabalduta dago. Alabaina, iodo-131 isotopoaren eragin kantzerigenoa aipatu beharra dago, berriki Fukushima zentral nuklearraren leherketaren karietara azaldu diguten bezala.

Industrian aplikazio ugari ditu iodoak, lanpara halogenoetatik hasi, zelula fotovoltaikoetatik segi eta zilarrarekin nahastuta euria eragiterainokoa ahaztu gabe.

Iodoa naturalki produzitu da urtetan Eskozia, Irlanda eta Britainiako itsasertzetako algen eraginez. Gaur egun Txinan eta Japonian produzitzen dute eskala industrialean.



Hautzaroko bizimodua ADNan islatzen da

Umetan gosea jasateak edota bizi-baldintza eskasak izateak helduaroan izango ditugun osasun-baldintzei eragiten dietela ustea baino zerbait gehiago da. Baina umetan bizi izandakoa gure ADNan txertatzen da? Hori ikertu dute Montrealen McGill Unibertsitatean. <http://ttiki.com/33170> (Gaztelaniaz)

Erlatibitate orokorraren eta mekanika kuantikoaren arteko erlazioa

Einsteinen erlatibitate orokorraren teoria eskala kosmikoan frogatu izan da, eta baita mekanika kuantikoa ere eskala mikroskopikoan. Vienako Unibertsitateko ikerlari talde bat erlatibitate orokorraren teoria eskala mikroskopikoan frogatzen saiatuko da; bestela esanda, teoria biak bateragarriak direla frogatzen saiatuko dira. <http://ttiki.com/33171> (Gaztelaniaz)

Espazioko zizarea

Nazioarteko espazio-estazioan *Caenorhabditis elegans* espezieko zizarearen eboluzioa aztertu dute. Egunen batean gizakiak espazioan bidaia luzeak egitean ondoan eraman behar izango dituen bizidunen azterketaren barnean kokatzen da saiakera.

<http://ttiki.com/33172> (Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Gero beroa

BURUARI BUELTA EMANEZ, estutuz, haizea harrotu dute Eskozian eta Danimarkan. Itsasoari begira haize-errotak hedatuz bere energia premiak asetzeko adina bertan sortzeko asmoa dute.

Errota haiek bira eta bira sortzen duten haizea da guk buruan darabilguna. Eta haizeak hauspotutako buruak sortzen duena ez dut gustuko izaten. Geurean burutazio hauek superportua dakarte (izena bera ere... Okerragoa jarri zion, hala ere, diputatu "nagusi" batek: ekoportua). Txikizio portu horrek gure etorkizuna kanpoko energiari kateatu nahi dio, energia fosilak erreaz elektrizitatea sortzeko zentral erraldoia baita portuaren benetako xedea.

Garai batean, garapenaren puntan zebilenean, Gipuzkoak zuen industria guztia, batez ere burdinolak, eta gizarte osoaren energia-behar guztia basoak asetzen zuen. Milaka eta milaka txondor-plazatan ikatza egiten zen eta su-egurra nonahi bazen. Baso bera inaurkina (orbela, garoa...), azienda-bazka (larrea, otea, sastraka, zarba...), zura (etxegintza, ontzigintza...) eta abar luze bat emateko ere gai zen. Besterik ezean, basoari esker bizi zen garai hartako munduko jendarte aurreratuenetako bat.

Gaur, gure energia iturria kolonizatutako herri ostutako petrolioa da, eta mixeraren hurrengo prezioan ordaintzen dugu. Herri horiek esnatzen ari dira eta gu lo, bertan gozo. Elorrio dugu! Eskarmentuan sartzen al gara!

Thierry Verhelsteri ikasi nion kultura ez dela txapela jantzi, txistua jo eta aureskua dantzatzea. Herri



GORKA AZKARATE

Garai batean, Gipuzkoako industriaren eta gizarte osoaren energia-behar guztiak basoak asetzen zituen.

batek dituen arazoei irtenbideak bilatu eta taxutzeko gaitasuna da kultura. Lotu gaitezen gure etorkizuneko arazo larriena konponbideratzera. Noski, ez Josu Jon Imazen bidetik... Auzolanean hausnartuz. Non edo han beste zirrikitu batzuk aztarrikatuz. Nire iritzia eztabaidarako prest: lepatu edo mugarrotutako basoak.



WWW.NORTHJERSEY.COM

Haize-errotak itsasoan, Danimarkako kostaldetik gertu.



HOTELA IRIARTE JAUREGIA *****

Bidania (Bidegoian) Gipuzkoa • Tel: 943681234
www.iriartejauregia.com

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

1901: Espainiako Estatuko lehen gay ezkontza

A CORUÑA (GALIZIA), 1901EKO EKAINAREN 8A. Aita Cortiellak Marcela Gracia eta Elisa Sánchez ezkondu zituen San Jorge elizan. Apaizak Elisa gizonezkoa zela uste zuen, gizon jantzian eta Mario Sánchez izenez ezkondu baitzen.

Marcelak eta Elisak A Coruña-ko Irakasle Eskolan ikasle zirela ezagutu zuten elkar, eta hasierako laguntasuna maitasun harreman bihurtu zen. Eskandaluaren beldur, Marcelaren gurasoek alaba Madrilerara bidali zuten ikasketak amaitzera. Baina titulua eskuratuta, atzera Galiziarra itzuli zen, A Coruña alboko Calo herrixkan irakasle postua lortu baitzuen. Elisa, berriz, handik oso gertu hasi zen irakasle lanetan, Couson, eta biak berriz bildu ziren.

Ezkontzaren urtean bertan Elisak gizonezko itxura hartzea erabaki zuen, Mario izena hartu zuen, eta iragan egokia asmatu zion pertsonaiari. Londresen hazi omen zen, aita ateoaren omen zuen, eta horregatik, ezkondu baino egun batzuk lehenago Aita Cortiellak berak bataiatu zuen.

Baina Mariok Elisaren antza handia zuen, eta inguruko zurrumurruak egunkarietara iritsi ziren, ez Galizian soilik. Esaterako, Madrilgo *El suceso ilustrado* egunkariak *Matrimonio sin hombre* (Gizonezko gabea ezkontza) izenburuko artikulua argitaratu zuen uztailaren 14an.



Marcela Gracia eta Elisa Sánchez (gizon jantzian) ezkontzaren egunean.

LA VOZ DE GALICIA

Marcelak eta Elisak lana galdu zuten, eskumikatu egin zituzten, eta biak bilatzeko eta atxilotzeko agindua eman zuten. Guardia Zibilak bizileku zuten Dumbriaraino esetsi zien, baina bikoteak Portugalera ihes egitea lortu zuen. Porton atxilotu, giltzaperatu eta, azkenik, askatu egin zituzten. Urrutirago alde egin zuten orduan, Argentinara. Han galdu zen emaztekieen arrastoa, 1904an.

2008an, Espainian gayen arteko ezkontza legez onartu eta hiru urtera, A Coruña-ko Unibertsitateko katedradun Narciso de Gabriele Estatu-ko lehen gay ezkontza haren nondik norakoak bildu zituen *Elisa e Marcela. Alén dos homes* (Elisa eta Marcela. Gizonez harago) liburuan. Egunotan eta urtarilaren 31ra bitartean, unibertsitate berean, *Marcela e Elisa* izeneko era-

kusketa dago ikusgai. Eta beste galiziar batek, Mariano Rajoy Espainiako gobernu-ko presidente berriak, duela 110 urte irekitako zirrikitua itxi eta duela sei urte onartutako legea indargabetu dezake aurki.

Baina ez eliza katolikoak ez erregistro zibilak, ez dute sekula A Coruña-ko elizbarrutiko artxiboan gordeta dagoen ezkontza agiri hura baliogabetu, eta, beraz, Marcela eta Elisaren ezkontza baliaduna da oraindik.



Arrastoak

Lurrikaren aurkako eraikinak duela 5.000 urte

MICHAEL SWERDLYK



CARAL hiria duela 5.000 urte eraiki zuen zibilizazioak Peruko inguru horretan ohikoak diren lurrikarei egin behar izaten zien aurre. Amerikako hiri zaharrenaren arrastoak duela hamazazpi urte aurkitu zituzten eta orain, 32 piramide aztertu ondoren,

Richter eskalan 7,5 gradura arteko lurrikarak jasatea ahalbideratzen zuten eraikuntza teknikak erabili zituztela baieztatu dute. Lurrikarei aurre egin arren, Caraleko zibilizazioa muturreko aldaketa klimatikoak desagerrarazi zuten. Eremua basamortua da egun.

Miel. A Elustondo

«Bill-en arrakastak euskaldunok kutsatu gaitu»

Mr. Basque (Pamiela) liburuan William A. Douglass (Reno, AEB, 1939) antropologoaren biografia atundu du Miel A. Elustondok. Hamar urteko joan etorrien emaitza da. Kazetariarekin aritu gara Douglassen bizitzaz, pentsaeraz, jarduera akademikoaz eta euskal diasporaz oro har.

URKO APAOLAZA

Nevadako Unibertsitateko Euskal Ikasketen Zentroan egindako lanagatik ezagutzen dugu Douglass, baina liburu honek beste dimentsio bat erakusten du. Hori al zen helburua?

Asmoa proposatu nionean, biografia nuen helburu. 1999an izango zen, eta Renoko Programan jakina zen Douglass sek erretiroa hartuko zuela 2000. urtean sartzearekin batera. Beraz, ziklo bat ixteko modua zen biografia. Era berean, Programan gauza jakina zen Douglass, haren sortzaile, koordinatzaile, antropologo eta ikertzailea izanagatik ere, besterik ere bazela; alegia, arrantzale zaildua eta kasino jabea, besteak beste. Hortaz, hain ezagunak ez zitzaizkigun alderdiak ere lantzea zegokigun, lehenengo biografia asmo hura biribiltzekotan. Espedizioan abiatzea izan zen, zer aurkituko.

Douglass sek liburuan dio “otso bakarti” bat dela, ez zaiola ekipoa lan egitea gustatzen. Aldiz, bere biografia lehenengo pertsonan idatzi duzu, sintonia handia behar da horrelako zerbait egiteko...

Renon bertan nengoela hasi ginen elkarriketan. Eta, lehenengo udan ez, beharbada, baina bigarrenarako taxutua genuen 300 orrialdeko liburu asmo bat. Ondoren, hura zuzentzen, osatzen, testu berriak eransten hasi ginen. Horrela jardun



Miel A. Elustondo AEBetara egindako bidaietako batean lanean.

genuen zenbait urtez, dela ni Renon nintzela, dela bera Euskal Herrian zela. Baina ez genuen argitaratzeko une aproposa ikusten. Harik eta aurtén, diasporaren

“Lehenengo urtea igaro eta Bill lur jota zegoen. Euskal Ikasketen Programak ez zuen nondik jo. Jon Bilbao ondoan izateak ikaragarri lagundu zion”

mundu biltzarrean Bill gurean izango zela jakin genuen arte. Orduan bai, azkeneko esprinta jo genuen eta liburua Pamiela argitaletxearen esku utzi genuen. Lehenengo pertsonan jartzea erabaki nuen, ez nuen nire galderarik ere ezarri, ez zaidalako tartean sartzea gustatzen. Bera da protagonista.

Hamar urte hauetan liburuko analisi batzuk zaharkituta gera litezkeela aitortu duzu. Zeintzuk?

Hizketan hasi ginenean lanean ari zen oraindik, emaztea –Jan–, onik



Ezkerrean William A. Douglass baserritarrez jantzita (ezkerrean) Etxalarko inauterietan. Eskuinean Eloy Place, Julio Caro Baroja, William A. Douglass eta Jon Bilbao.



zuen artean, ETA atentatuen sokan zen, kasino jabea zen, sasoiko zegoen... Handik hamar urtera, erretiraturik bizi da, arrantxoan; Jan hila da eta Julie du hirugarren emaztea; kasinoek hondoa jo zuten; ETA eta Espainiako Gobernuaren artean bitartekaritzan jardun zuen Billek; osasunari dagokionez, zera esango dizut: orain dela lau urte etxean izan genuen batean, bitan eraman behar izan nuen larrialdietara... Duela hamar urteko Douglass, nahiz eta oraingoa izan, ez da oraingo Douglass bera.

Basque Studies Center-ek prestigioa eta izena du gaur egun. Douglass pertsona klabea izan da zentroa aurrera ateratzeko. Nondik esango zenuke sortu dela arrakasta?

Lanetik. Ez dago besterik. Eta Jon Bilbao ondoan izatea. Lehenengo urtea igaro eta Bill lur jota zegoen. Euskal Ikasketen Programak ez zuen nondik jo. Ez zekiten. Jon Bilbao ondoan izateak ikaragarri lagundu zion Douglassi. Jon ideia-ontzia zen. Bien artean egin zuten *Amerikanuak* liburua ere, eta bitarte horretan Programaren bidea erakutsi zuten: euskal amerikarrak, ikerketa, argitalpenak, Euskal Herriarekiko lotura, irakasle-ikasle bisitariak... Bideari lotu zirenetik, ez dira arrastotik irten. Horrek eman dio nortasuna Renoko Programari.

Amerikanuak urte askoan erreferente izan da historiografian eta soziologian. Baina berak dio: "Euskal artzainak bezala, historiara pasa da". Jakina da egungo euskal diasporak ez duela zerikusirik *Amerikanuak*-en deskribatzen denarekin. Nola aldatu da Douglassen ikuspegia euskal-amerikarrarekiko?

Douglassek berak erantzun behar lioke horri. Baina, nik dakidanez, *Amerikanuak* egin zutenean, euskal amerikarra artzaina zen. Are gehiago, artzainaren azkena zen. Ezkutatza zihuan egoera erretratu zuten, aztertu, ikertu. Gaur egun, eraikuntzan dira euskaldun zenbait, Renon; etxeetako belar eta lorategiak zaintzen dituzte beste askok San Frantzisko aldean; era guztietako lanbideetan ari dira Boisen... Lehenengo belaunaldiko euskaldunak bakantzen ari dira, desagertu dira hainbat herritan. Bigarren eta hirugarren belaunaldiko euskaldunak amerikar ere badi-ra, eta amerikarra dute bizimodua,

"Euskaldunekin topo egin izan ez balu ere, Chicagoko irakasle batek Caro Baroja irakurtzera jarri izan ez balu ere, Douglassek arrakasta izango zuen mundu akademikoan"

euskal dantza eta noizean behingo jaia gorabehera.

Euskaldunetz ikertu ez balu, izango al luke Douglassen curriculum akademikoa orain duen prestigiorik? Zer punturaino dago prestigio hori bere izaerari lotua?


Euskal Ikasketen Programan ezinean zebilen garaian ere, Douglassek beste zenbait unibertsitatetako eskaintzak zituen. Chicagoko unibertsitatean ikasi zuen Antropologia, eta hura AEBetako onena zen garai hartan. Euskaldunekin topo egin izan ez balu ere, Chicagoko irakasle batek Caro Baroja irakurtzera jarri izan ez balu ere, Douglassek arrakasta izango zuen mundu akademikoan, arrantzan izan duen moduan, adibidez. Arrakasta izango zuen, idazle ona dela-



ko, burutsua delako, saiatua, *workoholic* (lanaren menpekoea)... Eta egia ere da, haren arrakastak gu, euskaldunok, kutsatu gaituela.

Douglassek harreman estua izan du Euskal Herriarekin, bere sorterrian batzuek *Mr. Basque* deitzeraino. Baina noraino izan da harreman hori akademikoa eta profesionala, eta noraino sentimental?

Mr. Basque hori txantxa bat da. Antropologo biltzar bateko jolasa. Euskaldunak besterik aztertzen ez zituela uste zuten. Baina Italian eta Australian ere landa lana egin da Douglass. Jolas horretatik etorri da liburuaren izenburua. Harremana akademiko eta profesionala izan da, zinez, baina asko du sentimendutik. 1964an Etxalarren eta, ondoren, Aulestin izan zenean egin zituen lagunek –Emilio Kortabitarte abadea batez ere, eta haren ondoan, Alberto Gabika eta Jabier Amuriza–, ikaragarri lagundu zuten Douglass “abertzaletzeko” bidean. Berak dioenez, han ikusiak, han biziak, Renoko Programan lan egi-



Douglass Nevadako unibertsitateko bulegoko paper artean; horman zintzilik, jasotako hainbat sari ageri dira.

teko konpromisoa hartzera bultzatu zuten. Sentimendua, nahitaez. Zertan sartu, bestela, ETA eta Espainiako Gobernuaren arteko saltsatan? Joan zitekeen arrantzara, edo andrearen ondoan egon, gaixorik zegoenean.

Kasinoen munduan Douglassek izandako inplikazioaz harritu egingo da, agian, Euskal Herriko irakurlea. Baina gehiago harrituko da jakitean Euskal Ikasketen Zentroko hainbat kontu kasino horietatik irabazitako diruarekin ordaindu zituela bere poltsikotik.

ZALANTZARIK GABE KULTURA

2012



www.elkar.com

elkar


'Mr. Basque' liburuko pasarteak

"Diru asko irabazten nuen, baina aspertu egiten nintzen"

Zintzotasun osoz diot: Lehen, Nevadako [kasinoen] monopolioarekin, diru asko irabazten nuen, baina aspertu egiten nintzen. Jokotik lortutako etekinetak asko BSPri (Basque Studies Program) eman nizkion anonimoki. Agian milioi erdi dolar baino gehiago. Beste gauza batzuen artean, euskara-ingelesa hiztegiaren proiektua mantendu nuen, hamar urte iraun zuen lanak. (...) Aspertu egiten nintzen dirua irabazten nuenean, beraz, filantropia asko egin nuen. Aldiz, negozioak gaizki doazenean, txunditu egiten naute. Asko sufritu nuen hainbat urtez, baina aspertu, inolaz ere.

"Itzeako atea jo nuenean iluntzen ari zuen..."

Caro zenbait premisa eta eraginei lotutako pentsalaria zen. Zehazki, niretzat, Caro iloba zen ofizioz. (...) Julio ikusi nuen azken aldia, Euskal Herriatik Italiara nindoan eta udako egun ekaiztsua zen. Azken orduan erabaki nuen kasu egitea. Itzeako atea jo nuenean iluntzen eta trumoika ari zuen. Berak ireki zidan, mirabea ez zegoe-lako (...) Afaltzera joan ginen eta etxean lo egiten gertatzeko esan zidan. Ekaitzagatik argirik ez zuen gela bate-tara eraman ninduen. Juliok kandela bat piztu zuen eta joan aurretik esan zidan hura bere osabaren logela zela. Pio-ren ohean etzan nintzen eta mahaitxoan objektu dekoratibo bat baino ez zegoela ikusi nuen: *Juan de*



Alzate liburua. Osorik irakurri nuen kandelaren argitan.

"Milaka e-posta erantzun behar izan ditugu"

Hain da handia gure aktibitateaz euskaldunek eta ez-euskaldunek duten interesa, batzuetan kosta egiten zaigula erantzutea. Milaka e-posta erantzun behar izan ditugu. Anglo munduan ere informazio iturri gisa balio dugu euskaldunen inguruan. Adibidez, Madrilen M-11koa gertatu zenean (...) gure telefonoak jo eta jo aritu ziren. CNNkoak, BBCkoak eta nazioarteko prentsako eta irrati-kateetakoak ziren, gure iritzia eskatuz. Hainbeste ziren jaso genituen deiak, Zulaikak eta biok elkarrizketak banatu behar izan genituela.

"Nire buruari galdetzen diot nork negoziatu dezakeen ETAre izenean..."

[Joseba] Zulaikak eta biok idatzi dugun moduan, ETA kontzeptu gisa hartzen dut, egitura homogeen gisa baino. Nire buruari galdetzen diot nork negoziatu dezakeen ETAre izenean eta nork onar dezakeen emaitza bere izenean. ETA belaunaldiz belaunaldiko gertakaria da, gazteek elikatzen da. Ez dauka bere izenean hitz egiten duen pertsonarik, ezta barne prozesurik ere, pertsona bati baimena eman solaskide moduan mahai batera joan dadin, eta itzulitakoan, han erabakitakoa onartzeko. Ez bada gero, ETAre ondoren, "beta" edo "zeta"rik sortuko.

Filantropia da hori, ezta? Billen izaeraren tamaina ere erakusten du horrek. Modu anonimoan lagundu zuen hainbat proiektu eta zenbait pertsonaren soldata ordaintzen.

ETAk jarduera armatua behin-betiko amaitutzat eman aurretik idatzi zen liburu hau. Douglasssek gertutik bizi izan du Euskal Herriko egoera politikoa eta 2006ko bake prozesuan ere parte hartu zuen. Liburuan ETAr buruzko bere iritzia ematen du, bere "kontakizuna" egiten du...

Bitartekaritza lan hori izan zen, esate baterako, liburuaren argitalpena etenarazi zuen arrazoietakoa bat. Isilpeko aitorpena egin zidan, eta Suitzako bulegoarentzat egindako lana kontatu. Berak esan zidan gauza inportantea zela, artean ez zuela agerian kontatzerik, baina liburuan agertu beharra genuela.

Epe jakin bat igaro zenean, Suitzak agindutako denbora beterik, Douglasssek dena osorik idatzi eta aldizkari honen LARRUN gehigarrian argitaratu genuen, oso-osorik, euskarazko eta ingelesezko bertsioetan. Liburu honetara, berriz, laburpen motx bat besterik ez dugu ekarri.

William A. Douglass, amerikarrek euskaldunak ezagutzeko zubia ere bada. Adibidez, berak idatzi izan ditu "basque" sarrerak mundu anglosa-

"Etxalarren eta Aulestin bizitakoek Renoko programan lan egiteko konpromisioa hartzera bultzatu zuten. Sentimendua, nahita ez"

xoiko hainbat entziklopediatan, tartean *Encyclopedia Americanan*. Euskal Herrian eman izan dizkieten sariez harago, jabetzen al gara euskaldunok pertsona honek izan duen garrantziaz gure irudia eta jakintza esparru akademikoan zabaltzeko?

Euskaldun jantzia jabeturik dago, badu Douglasssek mundu akademikoan egin duen lan handiaren berri. Euskaldun erantziak, aldiz, ez daki ezer Douglassen gainean, ez Sarri-nandiaren gainean, ez euskaraz egiten diren askotariko lanen gainean. ARGIA, *Berria*, *Bi anai*, euskara munda, euskara jendea -Xamarrekin batera esateko-, ezezagunak zaizkio guztiz. Ez daki badirena ere. Douglassi dagokionean, berdin. Herri kultu bagina, hobe genuke. Beste oilar batek joko luke kukurruku. ■



ETA, zeren izena ote?

ETAk borroka armatua bertan behera utzi du. Karia horretara hedabide gehienek gaitz baten amaiera aipu izan dute, erakunde armatuko biktimen kopurua oroitzuz. Besterik ez balitz bezala. Dimentsio bakarreko fenomeno izan balitz bezala. Alta, ETA ezin da eragin dituen biktimekin laburbildu. ETA ez da soilik borroka molde bat edo estrategia bat izan, ez da bakarrik erakunde bat izan. Bost hamarkadetan zehar askoz ere gehiago izan da. Batzuentzat gauza bat eta bere kontrakoa beste batzuentzat, garai bateko zein besteko ondorioak arrunt desberdin edo kontrajarriak izanik.

Bizipen pertsonalen aldetik begiratzen badiogu, ETA dudarik gabe sufrimendu latzaren iturria izan da, batzuen eguneroko bizian mehatxu jasangaitza eta beldurra sortzen zuen kaputxadunen banda krudela ez besterik. Baina alderantziz, euskal herritar frankorentzat lehen eta gaur arte, erabateko engaiamendu altruista bideratzeko abentura arriskutsua izan da, usu dramatiko. Batzuen herra eta beskeen ohore eta duintasuna. Bizia emateko arrazoa bezainbat bizia kentzeko baime. Espainiari edota “demokrazia gazteari” eraso justifikatu ezina. Jasandako umilazio eta zapalkuntzari gogor erantzuteko arma legitiua.

ETA arazo morala eta etikoa izan da askotan eta jende askorentzat. Gisa berean, hainbat torturatzaile, txibato eta militar faxisten garbitzeaz pozteko aukera ere. Europa osoan paralizaturik gertatu zen zentral nuklear bakarra da ETAren ondorioetarik bat. Politika ikerlari askorentzat iraganetik iraun zuen konpondu gabeko anakronismoa zen borroka armatua. Beste batzuek aztertu izan dute euskal abertzaletasun modernoa piztu eta hedatzeko fenomeno sozial zabala, atxikimendu politiko eta identifikazio afektibo-kulturala sortu zuen erresistentzia sinboloa eta Espainiako Estatuak xoko guzietatik etorri immigrante andana frankismoaren beltzean abertzale bilakatzeko mekanismo azkarra. Abertzale borrokarako gogoia eta kuraia pizteko eta elikatzeko jardura izan da ETAArena eta ez soilik indarkeria erabiliz baizik eta beste arlo eta molde anitzetan ere: “Denek eman behar dugu zerbaite, bakar batzuek ez dezaten dena eman...” esaldiaren ildotik. Baina abertzaletasuna zabaldu zuenak, beste garai batean biktimizazio fenomeno alderantziz funtzionatzen hasi zelarik, nazionalismo espainiarrari hauspo lana ere egin zion. Txiki eta Otaegiren martirioak euskal jendartearen inpaktatu zuen ikaragarri baina hogeita bi urte berantago M. Angel Blancorenak beste hainbeste eragin zuen. Garai batean euskaldunen nazio askapen borroka nazioartean ezagutarazteko tresna izan zen ETA, ezkerreko mugimenduen artean sostengu zabalak bilduz. Espainiako Estatuak aspaldidanik Europari begira zernahi aldrebeskeria (tortura, ilegalizazioak, auziak) gordetzeko aitzakia gisa ere erabili izan du.

Batzuek estrategia baten zerbitzuko tresna politiko zorrotza eta eraginkorra zuten ETA, trantsiziotik hona, egoera normalizatzeko oztopo nagusia eta beraz burujabetza eta lurraldetasun arazo politikoak gori-gorian atxikitze. Parezan, funtsezko arazo politikoak saihesteko estakurua zuten besteek. Alderdi batzuentzat hauteskundeetan lehitzeko gai gogokoena zen. Beste batzuentzat, ilegalizatuak eta hauteskunde eremutik erabat kanpo gelditzeko kausa. Ahantzi gabe, ETA kondeinatzearekin batera Madrili begira zeharkako xantaia bezala erabiltzen zutenak.

Hori guztia eta beste gauza askoren izena da ETA. Gauza itsusiak eta ederrak, humanoak eta politikoak, anekdotikoak nahiz historikoak. Euskal Herriko jende gehienentzat “betidanik” bazen ETA. Orain desagertzera doa eta hutsune bat nabaritu da. Nork daki zer izanen den ETArrik gabeko Euskal Herria? Irekitzen zaigun kapitulua esperantzagarri bezain konplexua dugu, borroka eta konfrontazio demokratikoz betea hain segurua baina agian, gehiengoaren desioa baita behintzat, odol eta malkorik gabekoa.



GAIZKA IROZ

Jakes Bortairu

» Txiki eta Otaegiren martirioak euskal jendartearen inpaktatu zuen ikaragarri baina hogeita bi urte geroago M. Angel Blancorenak beste hainbeste eragin zuen



Fathi Buzakhar

Libiako Amazigh Kongresuaren burua

«Iraultzak traizionatu gaituelakoan gaude asko»

Ostiral batean hartu gaitu Buzakhar jaunak Tripoliko etxean. Buruzagi amazighak dio jaiegunetan besterik ez dela hain dotore janzten.

Amazighen arropa tradizionala ote den hura galdetu diogu: “ez, libiar guztien arropa da hau” diosku. Bada, ez al dute amazighek euren janzkera tradizionala? “Jakina, kontua da libiar guztiak amazighak direla, askok oraindik ez dakiten arren”.

Testua eta argazkiak:

KARLOS ZURUTUZA



“Ipar Afrikan, gehienak, arabieraz mintzo diren amazighak dira”.

Amazigh, tamazga, tamazight... hitzok arrotzak gertatzen zaizkigu gurean oraindik.

Amazighek “gizon askea” esan nahi du gure hizkuntzan, amazighen pluralean. Afrika iparreko jatorriko biztanleak gara. Atlantikotik Egip-torainoko lur esparruan zabaltzen gara, nahiz eta, askotan, “orban txikiak” baino ez izan Afrikako mapan. Kostaldea eta Saharako basamortua hartzen duen esparru horri Tamazga deitzen diogu, eta tamazight gure hizkuntzari (amazigharen femeninoa da). Hizkuntza propioa ez ezik gure alfabetoa ere badugu, tifinag izenekoa. Egun, egokitutako bertsio bat erabiltzen dugu baina tuaregek antzinakoa mantentzen dute oraindik.

Tuaregak ere amazighak dira?

Bai, hiztegi kontu urri batzuk aparte utzita, arazorik gabe ulertzen dugu elkar. Bestalde, gure alfabeto zaharra euren artean baino ez da kontserbatu egundaino. Izan ere, ezagunak dira tuaregek alfabeto zaharraz idatzitako amodiozko gutunak. Haiek tamaxek deitzen diote euren hizkuntzari, tamazight glotonimo beraren bariantea baino ez da.

Amazighok batera altxa zineten Gaddafiren kontra iragan otsailean Libian. Ez al zegoen Gaddafizalerik zuenean?

Nekez. Batetik, ez zen inoiz amazigh bakar bat ere egon Gaddafiren exekutiboan. Bestetik, ezin ahaztu Gaddafik gure herria zapaldu beste-

rik ez zuela egin boterean eman zituen lau hamarkadetan. Ezin genuen gure hizkuntzan hitz egin edo gure seme-alabei amazigh ize-nik eman; ezin liburuak argitaratu, gure erlijioa praktikatu...

Erlijioa?

Bai, Libiako amazighok ibadiak gara jatorriz. Gaddafik, gure identitatearen beste ikur bat zela atzematean, gure iman guztiak atxilotu, exekutatu edo ihesarazi zituen. Ibadi gurasoen seme-alabek eskola sunietan ikasi behar zuten nahitaez. Joera irekia eta moderatua izateaz gain, naturarekiko lotura handia adierazten du oraindik ibadismoak: azken epaiketaren aurrean bi munduen barkamena beharko duzu;

Normaltasunerako bide amaigabea

Ulertzekoa da Fathi Buzakharren etsipena. Amazighek, edo tamazight hiztunek, Libiako populazioaren %10a osatzen dute –Libian sei milioi lagun bizi dira–. Gehiengoa osatzen duten eskualde bakarra, Nafusa mendikatea, Libiako gerraren ezinbesteko giltza bilakatu zen errebolta-rien garaipenerako, handik bideratu baitzen Tripoli mendean hartu zuen erasoa.

Otsailean gerra piztu zenetik, besteak beste, euren hizkuntz eskubideak aldarrikatu dituzte Libiako amazighek. Baina abuztuan sinatu Konstituzioaren zirriborroan ez zen aipamenik ere egiten herri honi buruz. Horren aurrean, Libiako Amazigh Kongresuak manifestazio erraldoia deitu zuen iragan irailean, gobernu berriaren atentzioa bereganatzeko asmoz. Tripoliko martirien plazan hamar milaka lagun elkartu arren, Gobernu berriak ez zuen inongo keinurik egin eurengana hurbiltzeko.



Gazte amazighak protestan azaroaren 27an.

Azaroaren 27an kalera jo zuten berriz Libiako amazighek, euren kontrako bazterketa salatzearen. Antza, ez dago amazighik gobernu berriaren goi karguetan eta marjinazioa salatu dute azken asteotan kale agerraldietan. Momentuz Zuarako Udalak –demokratikoki aukeratutako bakarra– harremanak hautsi ditu Trantsiziozko Kontseilu Nazionalarekin eta baliteke beste 27 amazigh herriek gauza bera egin izana elkarrikeria hau argitaratzerako. Antza, uste baino gehiago itxaron beharko dute Libiako amazighek euren eskubideak onartuak izan arte.

Jainkoarena batetik eta izaki guztien bestetik. Jainkoak barkamena eman dezake salbaziorako baina, esaterako, animalia bakar batek ez ematekotan, paradisuaren atea itxiko zaizkizu. Antzinako erlijio animisten eragina oso agerikoa da oraindik gurean.

Iraultzara bueltatuz, pozik zarete lortutako garaipenarekin?

Inondik ere ez. Tamalez, Libiako erregimen berriak lehenagoko diskurtso eta joerei eusten die, arabiar-

islamismoari alegia. Gaddafik ere hala egiten zuen. Abuztuaren 6an sinatutako Konstituzioaren zirriborro berrian ez da inon ere aipatzen gure presentzia Libian, ez eta gure hizkuntzaren aitortpena ere. Itxaroteko esaten digute, ez dela “momentu egokia”. Libiak bere independentzia lortu zuenean, 1951n, gauza bera entzun behar izan genuen. Bestalde, batzuek diote gure hizkuntza ezin dela ofiziala izan “gutxiengo bat” garelako. Horretarako borrokatu dugu gerra

honetan? Horretarako hil? Dagoneko, iraultzak traizionatu gaituelakoan gaude asko.

Gordina bezain esanguratsua azken esaldi hori.

Arazoa aspalditik dator. Arabiar hizkuntza nahiz ideologia islamarekin batera zabaldu dira mendez mende eta egun daukagun egoera horren ondorio zuzena da. Hala, “arabiarizat” hartzen dute euren burua arabieraz hitz egiten duten guztiek. Jakina arabiarrek izan badirela Libian, bai eta turkiarrak, txadiarrak... baina gutxiengo bat baino ez dira. Ipar Afrikan gaude, eta ez Ekialde Hurbilean. Libia ez da herrialde arabiarra. Guk Libiako arabiarrez ez, arabiar hiztunek hitz egiten dugu. Azken horiek gehiengoa izan arren, euren hizkuntza galdu duten amazighak baino ez dira.

Libiar guztiak amazighak dira, beraz?

Baita marokotarrak, aljeriarrak, tunisiarrak... Esan bezala, arabieraz mintzo diren amazighak dira gehienak Ipar Afrikan.

Hamaika amazigh talde agertu da azken hilabeteotan Libian, gehienak zuen hizkuntza eta kultura babesteko helburuz. Alderdi politikorik osatzeko asmorik ba al duzue?

Parte hartuko dugu politikan, beti ere erlijioa edota nazionalismoa alde batera utzita. Ez dugu amazighon alderdia eratu nahi, baizik eta libiar guztiontzat irekita izango den koalizioa. Ezin dugu arabiar nazionalismoa kritikatu eta, aldi berean, haren akats berak errepikatu.

Ez duzue lurrik aldarrikatzen Libia barruan?

Lurralde osoak gurea beharko luke, zergatik egin uko horri? ■



EHU/UPV

AMETZ BATEN

OINORDEKO GARA

UNIBERSIDAD VASCA EUZKO IRAKASTOLA NAGUSIA

1936

www.ehu.es/ametsbatenoirordekogara

Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

TALAIAN

Merkatariek euren legea inposatu dute

Joan den astean egin zen europar goi-bilerak beste behin erakutsi zuen merkatuek (banku eta finantza erakunde handiek) euren legea inposatzen segitzen dutela. Herrien eta herriarren Europa behar lukeenak merkatarien Europa izaten jarraitzen du, politikari eta agintariak belauniko dituen Kapitalaren Europa, alegia. Europar Batasunari (EB) ate-danbatekoa eman dion Ingalaterrari, Alemaniak eta Frantziak egozten diote Cityaren finantza interesak babestu nahi izatea. Baina Merkel eta Sarkozy filosofia bera ari dira inposatzen gainerako herrialdeei, merkatuen interesei mesede egitea, hau da, beren banku eta finantza erakunde handiei. Nola?

Merkozy-k lortu du EB osoan zero defizita inposatzea, lege maila emanez, eta zigor automatikoen politika martxan jartzea legea betetzen ez dutenentzat. Hala, Cameronek Cityaren atzean dituen interesak kritikatzeko dituztenek, mesede egiten diete espekulatuzaileei. Euren politikek ez diete erantzuten, esaterako, eragiketa finantzarioei erasango liekeen Tobin Tasa gisako eskaera sozialei. Aberastasun handiei zergak ezartzea ez dago haien planen artean.

Murrizketa gordinak inposatuz defizit publikoa erasotzeak, enplegua sortzeko beste neurririk gabe, hondamendirak besterik ez garamatza. Defizit publikoa gutxitzeko modu bakarra ekonomikoki haztea da, eta merkatuek lider europarren eskutik inposaturiko muturreko austeritatea albo batean uztea. Horretarako, tributu sistemaren gehikortasuna handitu behar da, errenta altuenak eta ondasun handienak zergapetuz, iruzur fiskala jazarriz, enplegua sortzeko finantzazioa erraztuz eta hazkunderako beste eredu bat bilatuz. Bestelako bideak hartzea espekulatuzaileei mesede egitea da, merkatariak mesede egitea.

Juan Mari Arregi

**Euskaltelen eta Azpeitiko Udala-
ren hitzarmena**

AZPEITIKO UDALARENA Euskal Herriko lehenengo adibidea da. Duela gutxi hitzarmena sinatu du Euskaltel telefono konpainiarekin. Udaleko telefono guztietan Euskalteletik jasotako ahozko dei eta sms mezu guztiak euskaraz baino ez dituzte jasoko. Lehenengo aldia da udal batek telefono konpainia batekin halako hitzarmena sinatzen duena. Dena den, Azpeitiko Udaleko Euskara zinegotziak garbi utzi du Euskaltelekin sinatutakoa garrantzitsua bada ere, alegia, telefonoak berak euskaraz egitea, are garrantzitsuagoa dela telefonoaren bestaldean dagoenari euskaraz egitea.

Atoan! argitaletxea, euskaraz ikasten ari direnentzako

ZENBAT GARA elkarte bilbotarrak sortu du Atoan! izeneko argitaletxea, eta *Euskara errazean* bilduma jarri du abian. Euskara ikasten ari direnei modu ulerterrazean idatzitako liburuak eskaintzea da asmoa. Iru-diak eta argazkiak baliatuko dituzte horretarako, testu osagarriak erabiliko dituzte eta hiztegi lagungarria ere izango dute liburuek.

Oraingoz lau liburu argitaratu dira: *Ehuneko ehun*, *Hego Itsasoetako ipuinak*, *Lurtarrak* eta *Maggie, kaleko neska bat*.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:
www.argia.com/harpidetza_haria.php

Kulturguneak eta krisia

ziklo ekonomiko berriak eredu jasangarriak eskatzen ditu

datorren astean

Hobetzeko hondoratu, horra eskuinaren errezeta

MIRARIA IZAN ZEN, 2009ko udaberrian 3,7 bilioi euro agertu ziren harrien azpitik Mendebaleko munduan krisi latzean ziren bankuak krisitik ateratzeko. Eta liberalenak ere sutsu agertu ziren bankuak zorrotz lotzearen alde. Baina jai, ez arautu eta ez kontrolatu, eta dirua Europako estatuetakozorrarekin jolasean hasi zen.

Eta orain Bruselako Europako Batasunean onartutakoekin, merkatuak aseko direla eta euroa eta EB lasai utziko dutela uste da. Baina epe motzean ez dago hori pentsatzeko inolako arrazoirik, gutxien gutxienez hor erabakitakoa indarrean jarri arte, eta bereziki Europako Banku Zentralari dagozkionak. Moody's kalifikazio agentziak ere modu horretan ulertu du gailurra: bileraren aurretik lotsa eta beldur gutxiarekin egin zion mehatxu EBri eta ondoren, bere horretan mantentzen dela iragarri du, hau da, zorraren kalifikazioa jaitsiko diela EBko hamabost estatuturi, Alemania moduko indartsuenak tartean.

Krisitik ateratzeko neurriei dagokienez, bi norabide handi dira nagusi: lehena gerrikoa estutzea da, ondo estu eta luzarorako; eta bigarrena, Europako Banku Zentrala (EBZ) benetako banku publiko batek egin beharko lukeenari ateak irekitzea, horrela honek eurobonoak egin ahal izango ditu eta larrialdian diren euroguneko ekonomien kanpo zorra erosi. Baina ez zaio EBZri ezer finkatu, hori EBZren independentzia urratzea litzatekeelako. EBZ egunotan mintzatuko da.

EBren eraikuntzari dagozkion erabaki handiak ere hartu dira, horien artean garrantzitsuena erabakitzeko moduari lotua: orain arte itun handiei buruzko erabakiak estatu guztien aho batez

hartu behar ziren eta oraingo gailurrean gehiengo handi bat nahikoa izan da erabakiak hartzeko (horrexegatik gelditu da Londres akordiotik kanpo).

EZ GAITEZEN TRONPATU, ordea, erabakitako dena egun estatuak duten zor guztia itzultzearen gain eginda dago, hori da goreneko helburua, sakratua den bakarra. Eta horrek esan gura du urte luzeetarako hipotekatuak direla gure bizitzak, azken hamarkada luzetako lorpen sozialak bertan behera gertuko direla, eta nola gainera. Txinako lehen ministro-ordeak era beldurgarrian irudikatu berri du etorkizun hori *Financial Times*-i emandako elkarrizketa batean: "Erdi Aroa, hori da datorkiguna finantza eta sozial eremuetan".

Europako Batasuneko gerriko estutzeak, gainera, ekonomiaren atzeraldia indartuko du urte batzuetan. Merkelek ondo daki zer esan nahi duen soldatak produkziara lotzearena, ondo dakielako datozen urteetan krisian diren herrialdeetan hazi baino produkzioak behera egingo duela, eta kasurik onenean gutxi haziko dela.

Larri diren euroguneko estatuak produkzioa handituz edo soldatak jeitsiz lehiatu behar dira saltzeko. Eta gailur honek, berriz ere, soldatak jaistearen aldeko apustua egin du. Honek esan nahi du klase langileetatik klase aberatsenetara etengabe gertatzen ari den errenta fluxuak bere horretan jarraituko duela. Hori adierazten duten datu asko dira, eta horietako bat izan da joan den astean ezagutu zena, Elkarlan eta Garapen Ekonomikoko Erakundeak eskainitakoak: aberats eta txiroen arteko desberdintasunak azken 30 urteotako handienak dira, baita Alemania,

Austria eta Suedia moduko herrialde aberatsetan ere.

ALTERNATIBARIK EZ DAGOELA

saldu nahi zaigu etengabe, baina egon badago, zalantzarik gabe. Epe motzera zaparradari eustean egongo da gakoa: datorren hertsura baretu dezan, elkertasuna; eta lorpen historikoak ahalik eta gutxien txikitu daitezten, herritarren presioa. Baina epe ertain eta luzera herritarra askoz hobeto bizitzeko moduko alternatibak badira, batzuk indarrean jartzeko modukoak eta beste batzuk aurrera begira.

Islandiak uko egin zion bere bankuek Erresuma Batua eta Herbehereekin zituzten zorrak ordaintzeari eta mundua ez zaie gainera erori, iragarri bezala. EBko estatuen zorraren ikuskaritza orokorra beharko litzateke, ikusteko zer ordaindu behar den eta zer ez. Europako Legebiltzarra indartzea, honek kontrola dezan EBZ eta honek banku publiko baten benetako rola izan dezan; EBZ bihar bertan has daiteke EBko herrialde batzuen zorra erosten. Finantza sistemaren arautze zorrotza, egiazko ekonomia bultzatzeko bankuak eta banku inbertsoreak bereiziz; zerga sistema bat finantza eragiketei begira...

Nahi adina alternatiba dira, baina neurri horien guztien eta gehiagoren arazo handiena zera da, ordea: bestelako norabidea nahi duten herritarren presioa behar dutela, kalean, hautesontzietan, erakundeetan... eta oraingoz ez dagoela aski presio alternatibetan sakontzeko. Antza, eta zoritzarrez, oraindik asko galdu behar da herritarren presio maila handietara iristeko.



Laborari txikien esnea txarra da multinazionalentzat

Munduaren Ipar aberatsak urtean 362 milioi tona esne ekoizten du eta Hego txiroak 337. Iparreko esne ia guztia kontrolatzea erdietsi ostean, multinazional erraldoiek orain Hegokoaren jabe egin nahi dute. Taktika guztiak dauzkate haizu horretarako: esne konpainia txikiak erosi, prezioak hondoratu, osasun estandarrak manipulatu...

ESNEA HERRITARREN ESKUETAN, aldarrikatzen du *Grain* aldizkariaren urriko zenbakiak. Grain elkarteak, beren buruez argitzen dutenez, “nazioarteko erakunde txiki bat da, helburutzat daukana baserritarrei eta mugimendu sozialei laguntzea bioaniztasunean oinarritu eta auzolanean kontrolatutako elikadura sistemak eskuratzeko borrokan”. Grainen fundatzaileetako bat Paul Nicholson bizkaitarra da, eta bigarren euskaldun batek, Aitor Urkiolak, darama elkartearen administrazioa Bartzelonatik.

Grainek gaztelaniaz *La leche en manos de la gente* titulatu duen moduan, *Soberanía alimentaria, biodiversidad y culturas* aldizkariak lerroburuok aurkeztu du gaia: *El gran robo de la leche. Cómo las multinacionales se apropian de la 'leche popular'*. Esne lapurreta handi bat gertatzen ari dela munduan, alegia.

Esne herrikoia? Hona zergatik. Jendearen oinarritzko jakia dena duela gutxi arte bere gisan funtzionatzen zuen kateak eskuratzen zien herritarrei: behi gutxi batzuk daukaten nekazarietatik biltzaile txikietara, hauek garraiatu hirietara eta karriketan saltzaile askok banatu, etxetz etxe salduz edo denda txikietan. Herrialde aberatsetan sare hori sun-tsitzen ikusi dela ez da denbora asko.

Baina munduaren Hego txiroan eta garapen bidean dagoenean oraindik kate *informal* horrek bermatzen du esnea etxeraino iristea. Iparrean esne komertzio informala –zirkuitu estandarretik kanpo geratua– %10era ez da iristen, baina Hegoan %80k horrela eskuratzen du esnea. Hemen ari da irakiten esnearen gerra.

Munduko baserritar esne ekoizle askok ez dakiten arren, Kolonbian egosi da gudu handietako bat. Kolonbian 50.000 *jarreador* –esne saltzaile– ari da egunero esne partiketan. Sarritan motoz garraiatzen dute marmita handietan oraindik herrialde hartan bizirik dirauten bi milioi ukuiluetatik hirietara. 40 milioi litro inguru. Esne gordina, familia bakoitzak etxean irakinaraziko duena.

2006an, ordea, Alvaro Uriberen gobernuak debekatu egin zuen pasteurizatu gabeko esnea garraiatu, saldu eta kontsumitzea. Mundu osoan esnekien kontrola osasun estandarrak ezartzearekin abiatu da, Euskal Herrian horrela desagertu dira –ez erabat– esne partitzaileak. Aldiz, arauak Kolonbian espero baino haserre handiagoa eragin zuen jendartean. Agintariek dekretu atzeratu egin behar izan zuten lehenbizi, eta azkenean 2010ean dekretu berri bat erabaki, esne gordinaren salmenta onartuz.

Takashi Yamano japoniarrak bere blogean dauka Kenyako esne kooperatiba txiki honen argazkia. Wakulima Group Dairy *le-txeriaraino* egunean 20.000 litro esne ekartzen dituzte inguruko laborari txikiek nork bere marmitetan, gero bertatik Nairobiko hainbat saltzailek banatu dezaten. Farmers Helping Farmers (Nekazariak elkarri laguntzen, ingelesez) erakundeak babesten du Wakulimaren jarduna, salmenta informalararen eta transnazionalek munduan ezarri dituzten estandarren arteko erdibidea egiten ahalegintzen diren kooperatibetako bat denak. Denek aurre egin beharko diete Nestlé erraldoiari eta honek Tetrapack konpainiarekin Afrika osoan antolatu duen estrategiari: esne gordinaren salmenta ahalik eta azkarren debekatu, bertako kooperatibak erosi, eta ondoren eremu hori erabili subentzietatik bizi diren Europa eta Amerikako granjetako esnea sartzeko.

Grainek azaldu ditu esne gordinaren salmenta ez zentralizatuak munduko herritar txiroei dakartzkien abantailak. Elikagai oinarritzkoa edonoren esku jartzen du, prezio oso merkean, eta ia beti kalitate oso onekoa, behitegi txikietan ekoiztu dutelako, hein handi batean larrean bazkatzeko behietatik. Milioika nekazari txikik horretan dauka bizi-bidea. Baina inbertsore handiak jabe dituzten korporazio erraldoiekin egin dute topo.

Esne pasteurizatuaren dogma

Gaur hoge konpainia handiek kontrolatzen dute esnekien munduko merkatuaren erdia. Beraiek prozesatzen dute planetako ukuiluetan jeltzitako esne guztiaren laurdena. Suitzako Nestlé da zerrendan txapeldun, merkatu osoaren %5 berea duelarik: urtean esnekitan bakarrik 26.000 milioi dolarreko salmentak lortzen ditu.

Nestléren ondotik datoz bi korporazio frantses, Danone eta Lactalis, bien artean Nestlé baino gehixeago saltzen dutenak. Lehen 10en zerrenda osatzen dute Holandako FrieslandCampina, Zeelanda Berriko Fonterra, AEBetako Dean Foods, Arla Foods, Dairy Farmers of America eta Kraft Foods, Danimarka-Suediako Alra Foods eta Britainia Handiko Unilever erraldoiek.



Ipar aberatseko merkatuak esne-
kiz leporaino daudenez, Hegoko
merkatu berrien bila dabilta guz-
tiak, Ameriketara, Afrikara eta Asian.
Aurreikusita daukate alde batetik
esnekien kontsumoa handitu egin-
go dela eta bestetik gero eta jende
gehiagok erosiko duela supermer-
katuetan.

Super eta hiperretara joko duten
kaletar dirudunenak berenganatu
dituzte herrialde horietan dagoene-
ko martxan dauden esne konpai-
niak erosiz. Argentinan, Brasilen,
Txilen... urte gutxitan erdietsi dute
moda ezartzea. Aldiz, bezero txi-
roen merkatuari esker esneketari txiki
informalek biziraun ez dezaten,
esne gordinaren izen ona zikintzea
da taktika osagarria.

Herritarrei sinetsarazi nahi zaie
behiaren errapetik jertzita berehala
eskuratutako esne gordin hori arris-
kutsua dela, osasun bermerik gabea.
Hala desagertu zen Euskal Herriko
kaleetatik, oraindik 4L zaharrarekin
goizero atez ate tematzen diren
baserritar bakanak salbu. Kanpaina
horretan ari dira orain denetan, Txil-
en bezala Kenyan edo Txinan.

Kenyan zorionez unai txikiak
alde jokatu dute unibertsitateko ira-
kasle batzuek, eta haien ikerlanek
erakutsi dute esne *libreak* berme
guztiak dauzkala. Txinan, berriz,
alderantzizkoa gertatu zen, baina
munduak ez du filma osorik ikusi.

Txinan 2008an 300.000 haur gai-
xotu ziren melamina gehitutako
esnea hartu izanagatik, bakan

batzuk hil ere egin ziren. Gober-
nuak konpainiako bi buruzagi
heriotzara kondenatu zituen. Baina
ezkutuan geratu da esne kutsatua
saldu zuen San Lu konpainiaren ia
erdiaren jabea Fonterra multinazio-
nala zela eta pozoia Txinatik harata-
go barreiatu zela. Bangladeshen
Nestléreren haurrentzako Nido
marka ezagunean aurkitu zuten
melamina, eta konpainia berak Tai-
wanen, Saudi Arabian eta AEBetan
bertan saldutakoetan. Esne ziurra?

Erosketak ere zentralizatu nahi
dituzte multinazionalok. Buruha-
ste handiegia da milaka baserri txiki-
tako esnea biltzea, hobe mega-
behitegietan kontzentratzea
ekoizpena. AEBetan 1970etik
2006a bitartean esnetan ari ziren
baserriak %88 urritu ziren, Euro-
pak %70 galdu ditu 1975etik
1995era. Aldiz, zirkuitu laburrean
funtzionatzen duen esnegintzak
lanpostuak mantentzen ditu... laga-
tzen zaion tokietan.

Mega-behitegiekin bestelako
buruhaustek ere heldu dira. Behi
batek hamar pertsonak adina
gorotz egiten duenez, 2.000 buru
dauzkan granjak hiri batek adina
hondakin sortzen du, gehienetan
izugarri kutsakorrak, egoki kudea-
tuko ez direlako.

Hegoan esne saltzaile txikiak
aurre egin nahian multinazionalen
zabaltzeari. Eta Iparrean gero eta
gehiago zirkuitu laburreko merka-
tuak eta esne gordina baliatzen.
Esne gordina berriro?

AEBetan horren ingu-
ruan bada gerra.
Hurrengo NET HURBIL-
en baterako gaia. ■







**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Aingeru Epaltza

Batasunaren kontra

Behari politiko gehienek haren kontra egina zuten trabes. Inkesta guti batzuetan baizik ez zen ageri, eta halakoetan dudak. Haren jarraitzaileak uzkuertza emanak ziren kontrario zuzenak: “Alferrik ari zarete. Boza zaborrontzira bota nahi ez baduzue, eman gure alde”.

Bati baino gehiagori tonto aurpegia jarri zitzaion azaroaren 20ko gauean. Aho bete hortz gelditu dira orgaren gurpiletan ziriak sartzen ibili direnak. Baten batek muturreko galanta hartu zuen, Geroa Baik diputatua erdietsia zuela ikusita.

Ez zebilen haize alde. Nafarroa Bairen herentzia bereganaturik egin du kanpaina, baina etorkiko koalizioa lau alderdietarik bat baizik ez zen gelditzen –EAJ–, ez preseski handiena. Independentek ere baziren, Zabaltzen taldearen inguruan bilduak, edo Atarrabiakoak, udallerri mailakoak. Haien ekarpena, haatik, hutsaren hurrengotzat hartzen zuten NaBaitik ihes egin dako alderdiek. Hain zuzen ere, jeltzaleen marka nafar gisa aurkeztu nahi izan dute trepetan berriaren kontra jo dutenak. Ezker abertzaleko ziber iritzi-emaile brigadak 20.000 boto iragartzen zizkion gehienez.

Halako bi baino pixka bat gehiago atera ditu Geroa Baik: 42.000. Amaiurrek, berriz, 7.000 gehiago. Urruti, zaleen sarean iragartzen zioten kopurutik, “gutxienez 70.000”. Maiatzeko hauteskundeetan Bilduri alde handiagotz nagusitu zitzaion Nafarroa Bai. Orduan abertzaleen arteko “berdinketa teknikoaz” mintzatu ziren batzuk.

NaBairen bertsio mehatuak funtzionatu du. Are gehiago, erran liteke on egin diola mehatzeak. EAren iheskeria gabe, Aralarren nagusikeria gabe eta bi horien arteko liskar etengabea gabe elkarrekin hobeki moldatu dira koalizioaren bi adarrak, diskurtso sinesgarriagoa eraiki dute eta eraginkorragoak gertatu dira kanpaina. Kalterako iduri zuenak on egin dio, hondarrean.



DANI BLANCO

Bertze faktore batzuk ere ezin ahanzi. Lehen-lehenik *Noticias* taldearen sostengua. Nafarroako bigarren egunkariak ez dio beldurrik izan bere irakurle batzuen fideltasuna kolokan jartzeari, Geroa Bairen alde aski agerian agertuta. Zerrendaburuaren nortasuna laguntza mediatikoa bezain erabakigarria izan da, bertzelde. Dударik ez,

arras bertzelako emaitzak eskuratuko zituen Uxue Barkos gabeko zerrenda batek. Jende anitzek “Uxueri” eman dio botoa, ez Geroa Bairei. Gauza handia da hori, baina zalantzak pizten ditu Geroa Bairen geroaz. Kazetari iruindarra ez da beti izanen, zerrenda guztietan buru izateko.

Horretan, eta bertze gauza anitzetan, badu lana hiru hilabete baizik ez dituen proiektu honek. Momentuz, eta zenbait uste ez bezala, mito bat hautsi du Geroa Baik: batasunaren premiarena.

Elkarlana, elkar hartzea, konplizitatea... Guztia beharko da etorkizunean. Ez batasuna.

Postmonzonismo guztia kontra, eskaintza euskaltzale bat baino gehiago izatearen abantaila erakutsi dute Nafarroako emaitzek. Zerrenda bakar batek –berezik, Amaiurren gisara, ezker abertzaleak hegemonizatutako zerrenda bakar batek– ez zituzkeen inola ere erdietsiko bakoitzak bere aldetik atera dituzten emaitzak. Geroa Bairei botoa eman dioten frankok inoiz ez liokete Amaiurri emanen. Ezta alderantziz ere.

Amaiurrek lan txukuna egin du euskarazko irakaskuntzaren ondorioz Euskal Herrian sinesten duen %30 horren gehien-go berenganatzen. Bertze %70a norbaitek landu beharko du, alabaina, eta horretarako leku hobean dirudi jarreraz eta posizionamendu ideologikoaz Nafarroako estandarretik hurbilago dagoen indar politikoak.


Haztea da herrialde honetan bizi dugun setio egoeratik ateratzeko bide bakarra. ■



« Elkarlana, elkar hartzea, konplizitatea... Guztia beharko da etorkizunean. Ez batasuna. Postmonzonismo guztia kontra, eskaintza euskaltzale bat baino gehiago izatearen abantaila erakutsi dute Nafarroako emaitzek »

ASTE HONETAKO

zozketa



**INDOOR
KARTING**

Tolosa Indoor Karting

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Iparraldeko autobidea, 433. irteera
Tolosa GIPUZKOA

www.indoorkartinggipuzkoa.com

1

Ekain berri




Ekainberri

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

2



Iruñeko Planetarioa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Antso Ramirez, z/g
Iruñea NAFARROA

www.planetario.org

3



Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA

www.artium.org

4



Munduko ipuinak

2 lagunentzat opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2301. Argia)

EUREKA Zientzia museoa

- Lurdes Uzkudun Etxenagusia (Errezil)
- Gregorio Elortza Izeta (Beasain)
- Iruñezar aek Euskaltegia (Iruñea)

TELEZAILAK Txalaparta argitaletxea

- Juan Bautista Agorria Burgoa (Arrasate)
- Aitor Zuberogitia Espilla (Durango)
- Xalba Elortza (Westhalten)
- Xabier Allur Zunzunegi (Hernani)
- Mayi Iza Agirre (Hondarribia)

BILBOKO EUSKAL MUSEOA

- Juanjo Barandiaran Arratibel (Donostia)
- Ane Ortiz Ballesteros (Bilbo)
- Miren Itziar Enbil (Deba)

ARTIUM Arte garaikideko euskal zentro museoa

- Alberto los Arcos Fernandez (Aras)
- Jone Santamaria Azpiri (Donostia)
- Blanca Beitia Bengoa (Gasteiz)

GARTXOT

- Pedro Jose Larrea Urtaran (Laudio)
- Luis Angel Agirre Muxika (Tolosa)

* Bisitaldiatarako epea: Bi hilabete

gunea

argia

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralerara 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea





ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzezarra, 1
Zumartegi industrialdea
☎ 943 37 11 50
20170 Usurbil (Gipuzkoa)
www.atxegajauregia.com

